Zona de abastecimiento: área geográficamente definida en la que la calidad de las aguas distribuidas puede considerarse homogénea en la mayor parte del año.

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Ingurumen Osasunaren Unitateak.

Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Unidades de Sanidad Ambiental.

2.1.4. Recuperación de suelos para nuevos usos

Entre los principales efectos que puede suponer un suelo contaminado están: el peligro toxicológico para la salud humana (problemas respiratorios y alergias entre otros), contaminación de aguas de abastecimiento, contaminación de alimentos cultivados y animales de granja por el consumo de agua contaminada.

Con el fin de hacer frente a los riesgos que suponen los suelos contaminados se puso en marcha en el año 2000 el primer programa de recuperación de suelos contaminados. Las tierras contaminadas objetivo del programa son los solares industriales y los vertederos que puedan suponer riesgo para la salud de las personas y para los ecosistemas, en los usos actuales y futuros que pretendan darse en el terreno.

La recuperación de suelos para nuevos usos es otro de los compromisos propuestos por el Gobierno Vasco de mejora ambiental en el Programa Marco Ambiental 2007-2010 donde se fija como propósito «recuperar 407 hectáreas de suelos potencialmente contaminados para 2010».

La evolución creciente del número de parcelas investigadas y recuperadas durante el período 2000-2008, alcanzando las 258 hectáreas de superficie recuperada de suelos contaminados para otros usos, manifiesta una tendencia favorable de mejora.

2.1.4. Lurak leheneratzea beste erabilera batzuetarako

Lur kutsatuak ondorio ugari izan ditzake, eta nagusienak honako hauek dira: gizakien osasunerako arrisku toxikologikoa (arnas arazoak eta alergiak, besteak beste), hornidurarako uren kutsadura, eta landutako elikagaien eta baserrietako animalien kutsadura, kutsatuta dagoen ura kontsumitu dute-lako.


Lur kutsatuek dakarten arriskua ezabatzeko asmoz, 2000. urtean kutsatutako lurak leheneratzeko lehen programa abiarazi zen. Programaren barruan sartu ziren industri orubeak eta zabortegeak, hau da, pertsonen eta ekosistemen osasunerako oraingo erabileren ondorioz edo lurtean etorki-zunean izan daitezkeen erabileren ondorioz arriskutsuak izan daitezkeen zabortegeak.

Eusko Jaurlaritzak 2007-2010 Ingurumen Estrategiaren Agirian ingurumena hobetzeko asmoz proposatutako beste konpromiso bat lurak leheneratu eta erabilera berriak ezartzea da. Izan ere, agirian haxe proposatu da: «2010. urterako, kutsatuta egon daitekeen 407 hektarea lur leheneratzea».

2000-2008 aldian zehar ikertu eta leheneratu den lurzati kopurua gero eta handiagoa izan da; guztira, kutsatuta zeuden lurretan 258 hektareako azalera leheneratu da beste erabilera batzuk emateko. Joera hori, gainera, gehitzen joan da.

Gráfico 5
Suelos contaminados recuperados
para nuevos usos

5. grafikoa
Kutsatuta zeudelako leheneratu diren eta beste
erabilera batzuk eman zaizkien lurrak



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Fuente: Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.

2.2. HÁBITOS DE VIDA

2.2.1. Actividad física

La actividad física mejora el estado de salud de las personas para al menos cinco condiciones crónicas: enfermedad coronaria, hipertensión, diabetes, osteoporosis y trastornos mentales. Y desde luego ayuda a controlar el peso corporal si se añade a una alimentación equilibrada y adecuada al gasto calórico de la actividad desempeñada por la persona.

2.2. BIZI-OHITURAK

2.2.1. Jarduera fisikoa

Jarduera fisikoak pertsonen osasun egoera hobetzen du, gu-txienez bost ezaugarri kronikotan: koronarioetako gaixotasuna, hipertentsioa, diabetesa, osteoporosia eta buru-nahas-teak. Eta, jakina, jarduera fisikoak gorputzaren pisua kontrolatzen laguntzen du, jarduerarekin batera elikadura orekatua eta egokia mantentzen bada, hau da, pertsona ba-tek egindako jardueraren bidez erretzen den kaloria kopurua-ren araberako elikadura mantentzen bada.

Tabla 2
Población que realiza alguna actividad física (%)
en su tiempo libre

2. taula
Aisialdian jarduera fisikoren bat egin duen
biztanle kopurua (%)

	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	39,7	47,1	39,8	51,5	23,3	39,5	31,3	42,8
16-24	52,5	56,4	53,1	60,5	24,2	36,9	33,6	41,5
25-44	38,6	46,2	37,9	47,5	23,4	40,0	31,4	41,9
45-64	35,7	42,9	35,9	50,2	28,0	40,7	34,1	46,5
≥65	32,7	45,7	39,0	57,3	14,8	38,9	26,4	39,8

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun inkesta.

Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.


El 51% de los hombres y el 43% de las mujeres han realizado alguna actividad física en su tiempo libre en 2007. Los hombres más jóvenes de 16 a 24 años presentaron la proporción más elevada de actividad física en el tiempo libre (60%); en las mujeres se encontró en las de edad adulta, de 45 a 64 años (46%).

Se ha apreciado un incremento de actividad física en el tiempo libre en los últimos años en ambos sexos, pero más intenso en las mujeres. Desde 1992, en los varones se ha incrementado 12 puntos la realización de alguna actividad física, y en las mujeres 20 puntos; aunque las mujeres partían de niveles muy bajos.

2007. urtean zehar, gizonen % 51k eta emakumeen % 43k noizbait jarduera fisikoren bat egin du aisialdian. Gizon gazteenek, 16-24 urte artekoek, egin dute jarduera gehien aisialdian (% 60); eta emakumeen artean helduenek, 45-64 urte artekoek (% 46).

Azken urte hauetan, bi sexuek egin dute jarduera fisiko gehiago, baina batez ere emakumeek. 1992. urteaz gero, 12 puntu igo da jarduera fisikoren bat egin duen gizon kopurua, eta 20 puntu igo da emakume kopurua. Gainera kontuan izan behar da emakumeen kopurua txikiagoa izan zela hasieran.

Gráfico 6
Población que realiza alguna actividad física (%) en su tiempo libre



6. grafikoa
Aisialdian jarduera fisikoren bat egin duen biztanle kopurua (%)

Tabla 3
Evolución del tiempo medio social, por participante y día de la semana

	Batez besteko denbora soziala (1) Tiempo medio social					Batez besteko denbora, partaide bakoitza (2) Tiempo medio participante				
	1993	1998	2003	2008	Bilak. / Evol. 2008/03	1993	1998	2003	2008	Bilak. / Evol. 2008/03
Kirol jarduerak Prácticas deportivas	0:09	0:09	0:10	0:12	0:02	1:25	1:23	1:24	1:33	0:09
Lanegunetan / Laborables	0:07	0:08	0:10	0:13	0:03	1:13	1:12	1:17	1:26	0:09
Ostiraletan / Viernes	0:10	0:07	0:12	0:11	-0:01	1:21	1:15	1:27	1:30	0:03
Larunbatetan / Sábados	0:13	0:13	0:10	0:13	0:03	1:55	1:48	1:42	1:45	0:03
Igandeetan / Domingos	0:09	0:11	0:08	0:11	0:03	1:40	1:51	1:41	2:02	0:21

(1) Batez besteko denbora soziala: biztanleek jarduera jakin batean emandako batez besteko denbora ≥ 16 urte.

Tiempo medio social: tiempo medio que dedica a una actividad la población ≥ 16 años.

(2) Batez besteko denbora, partaide bakoitzak: biztanleek jarduera jakin batean emandako batez besteko denbora ≥ 16 urte egiten duela.

Tiempo medio por participante: tiempo medio que dedica a una actividad la población ≥ 16 años que la realiza.

Iturria: Eustat. Denbora Aurrekontuen Inkesta.

Fuente: Eustat. Encuesta de Presupuestos de Tiempo.

Si bien, no sólo se realiza más actividad física durante el tiempo libre, sino que también aumenta su tiempo de dedicación. La Encuesta de Presupuesto de Tiempo (año 2008), donde se analiza la distribución diaria del tiempo dedicado por la población a diversas actividades, señala que el tiempo medio que dedica la población a prácticas deportivas ha aumentado 2 minutos respecto al año 2003, y más aún entre la población que realiza algún tipo de práctica deportiva, que dedicando 1 hora y 33 minutos diarios a esta actividad en 2008, resulta 9 minutos superior al año 2003.

2.2.2. Exceso de peso

El peso corporal, y en concreto el exceso de peso, se asocia a múltiples causas de mortalidad y de prevalencia de enfermedades (cardiovasculares, hipertensión, diabetes, cáncer de mama, colon y próstata), ya que la probabilidad de desarrollar un problema de salud es mayor para las personas que tienen sobrepeso que para las que tienen un peso adecuado, y sobre todo en el caso de las personas obesas.

El peso corporal se plantea como un problema tanto en relación al exceso de peso⁶, como al peso insuficiente. Ambas situaciones producen efectos perjudiciales en el estado de salud de las personas.

El 58% de los hombres y el 42% de las mujeres han manifestado exceso de peso; se considera así cuando el índice de masa corporal es igual o superior a 25. A partir de los 45 años, el 72% de los hombres y más de la mitad de las mujeres tuvieron exceso de peso. La probabilidad de desarrollar un problema de salud es mayor para las personas que tienen sobrepeso que para las que tienen un peso normal y aún mayor si son obesas.

La prevalencia de exceso de peso se ha ido incrementando en ambos sexos y, en general, en todos los grupos de edad a lo largo de los últimos años.

Aisialdian jarduera fisiko gehiago egin da, bai, baina horretan emandako denbora ere luzatu egin da. Denbora Aurrekontuen Inkestan (2008. urtea) biztanleek egunean zehar jardue- ra jakin batzuetan zenbat denbora eman duten aztertu da. Horren arabera, biztanleek kirol jardueretan emandako denbora batez beste 2 minutu luzatu da, 2003. urteko datuekin alderatuta; are gehiago, kirol jardueraren bat egin duten biztanleen artean, 2008an jarduera horretan ordu 1 eta 33 minutu eman dutenek 2003an baino 9 minutu gehiago luzatu dute jarduera.

2.2.2. Pisu gehiegia

Gorputzaren pisuak eta, zehatzago, pisu gehiegia heriotza eragiten duten arrazoi askori eta gaixotasun kopuruari (kardiobaskularrak, hipertentsioa, diabetesa, titietako minbizia, koloneko minbizia eta prostatako minbizia) dago lotuta. Gehiegizko pisua duten pertsonen, baina batez ere pertsona gizenek, pisu egokia dutenek baino probabilitate handiagoa dute osasun arazoren bat edukitzeko.

Gorputzaren pisua, beraz, arazoa da: bai gehiegizko pisua edukitzea⁶⁶, baita pisu gutxiegi izatea ere. Bi arazo horiek ondorio kaltegarriak izan ditzakete pertsonen osasunean.

Gizonen % 58k eta emakumeen % 42k gehiegizko pisua izan dute, hau da, gorputz-masaren indizea 25 edo hortik gora izan dute. 45 urtetik gorako pertsonen artean, gizonen % 72k eta emakumeen erdiak baino gehiagok izan dute gehiegizko pisua. Gehiegizko pisua duten pertsonen, baina batez ere pertsona gizenek, pisu normala dutenek baino probabilitate handiagoa dute osasunean arazoren bat izateko.

Bi sexuen artean eman da gehiegizko pisua duten pertsonen kasu gehiago eta, oro har, adin-talde guztietan eman da iguera hori azken urte hauetan zehar.

Tabla 4

Prevalencia de exceso de peso (IMC $\geq$ 25) (%) por sexo y grupos de edad (%)

	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	51,9	54,0	55,8	58,1	36,9	37,0	37,8	41,6
16-24	21,5	24,8	25,8	25,7	11,4	13,6	13,0	13,9
25-44	53,1	47,3	50,6	50,2	23,7	23,8	24,8	27,5
45-64	67,2	66,7	69,8	71,8	55,5	50,1	50,1	51,0
$\geq$ 65	60,3	61,7	70,6	72,8	59,2	53,3	58,8	63,3

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritz. Osasun Inkesta.

Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.


4. taula

Pisu gehiegia duten pertsonen kopurua (GMI $\geq$ 25) (%), sexua eta adin-taldea bereizita (%)


⁶ En la Encuesta de Salud se utilizó como indicador del peso corporal el índice de masa corporal (IMC). Este indicador pone en relación el peso del individuo con su altura y da como resultado un valor que indica si la persona se encuentra por debajo, dentro o por encima del peso establecido como normal para sus características antropométricas. Se clasifica así a los individuos de una población en aquéllos con peso insuficiente (IMC<18,5), normal (IMC 18,5-24,9), sobrepeso (IMC 25-29,9) y obesidad (IMC $\geq$ 30).

⁶ Osasunari buruzko Inkestan Gorputz-masaren Indizea (GMI) erabili da gorputzaren pisua neurtzeko. Adierazle honek banakoaren pisua eta altuera hartzen ditu kontuan, eta emaitza gisa lortzen den balioak adierazten du pertsona horrek bere ezaugarri antropometrikoen arabera normalizat hartzen den pisua duen edo pisu horren azpitik edo gainetik dagoen. Banakoak, orduan, honela banatzen dira: pisu gutxiegi dutenak (GMI<18,5), pisu normala dutenak (GMI 18,5-24,9), gehiegizko pisua dutenak (GMI 25-29,9) eta pertsona gizenak direnak (GMI $\geq$ 30).

Gráfico 7
Prevalencia de exceso de peso ($IMC \geq 25$) por sexo
y grupos de edad. (%)




7. grafikoa
Pisu gehiegia duten pertsonen kopurua ($IMC \geq 25$),
sexua eta adin-taldea bereizita. (%)



Además, el exceso de peso, en el caso de las mujeres, parece guardar una relación gradual con el grupo socioeconómico de pertenencia: a medida que bajamos en el nivel socioeconómico la prevalencia de exceso de peso aumenta. El colectivo de nivel socioeconómico más bajo se sitúa 15,5 puntos por encima del grupo mejor situado.

Gainera, gehiegizko pisua duten emakumeen artean badirudi ezaugarri horrek pixkanakako lotura duela pertsonaren talde sozioekonomikoarekin: maila sozioekonomikoan behera egin ahala gehiegizko pisua duen emakume kopurua handitu egiten da. Maila sozioekonomiko beherenean dagoen taldea goren dagoenak baino 15,5 puntu gehiago ditu.

Gráfico 8
Exceso de peso (%) por sexo y grupo
socioeconómico



8. grafikoa
Pisu gehiegia (%), sexua eta talde
sozioekonomikoa bereizita

2.2.3. Obesidad

El dato más preocupante relacionado con el peso se refiere a la prevalencia de la obesidad. El 13% de los hombres y el 12% de las mujeres son obesos, es decir, su índice de masa corporal es igual o superior a 30. Las prevalencias más altas en los hombres se han detectado a partir de los 45 años, y en las mujeres se ha retrasado a partir de los 65 años. La obesidad se quintuplica en la población mayor con respecto a la joven.

En los últimos años, la prevalencia de obesidad ha ido aumentando en ambos sexos y en todos los grupos de edad.

2.2.3. Gizentasuna

Pisuari buruz daukagun daturik kezkarriena pertsona gizenen kopurua da. Gizonen % 13 eta emakumeen % 12 pertsona gizenak dira, hau da, horien gorputz-masaren indizea 30 edo hortik gorakoa da. Gizonen artean kopuru handiena 45 urtetik gora eman da, eta emakumeen artean 65 urtetik gorako talderaino atzeratu da arazo hori. Adineko pertsonen artean, gizenen kopurua gazteenen artean baino bost aldiz altuagoa izan da.

Azken urteetan, bi sexuetan handitu da pertsona gizenen kopurua, eta adin-talde guztietan gainera.

Tabla 5
Prevalencia (%) de obesidad ($IMC \geq 30$) por sexo y grupos de edad

	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	7,5	10,4	10,4	13,3	8,6	9,6	9,5	11,8
16-24	1,7	2,9	2,6	4,4	0,9	3,0	1,9	3,5
25-44	7,2	9,8	8,5	8,9	5,0	6,1	4,8	6,6
45-64	10,6	15,8	15,1	19,6	12,9	12,4	12,9	14,7
≥ 65	11,0	11,5	13,7	18,0	16,7	17,7	17,6	19,6



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta.

Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

5. taula
Pertsona gizenen ($GM \geq 30$) kopurua (%),
sexua eta adin-taldea bereizita

Gráfico 9
Prevalencia (%) de obesidad ($IMC \geq 30$) por sexo y grupos de edad. 1992-2007

9. grafikoa
Pertsona gizenen ($GM \geq 30$) kopurua (%), sexua eta
adin-taldea bereizita. 1992-2007



2.2.4. Peso insuficiente

Se considera que una persona presenta peso insuficiente cuando su índice de masa corporal es inferior a 18,5.

En 2007, el 0,8% de los hombres y el 3,1% de las mujeres tuvieron peso insuficiente. Es un problema que afecta con mayor frecuencia a la población joven y especialmente a las mujeres. El 9,2% de las mujeres de 16 a 24 años tenía peso insuficiente frente al 3,1% de los hombres de esa misma edad.


2.2.4. Pisu gutxiegia

Pertsona batek pisu gutxiegi du bere gorputz-masaren indizea 18,5etik beherakoa denean.

2007. urtean, gizonen % 0,8k eta emakumeen % 3,1ek pisu gutxiegi izan du. Gazteek eta batez ere emakumeek izaten dute gehienbat arazo hau. 16-24 urte arteko emakumeen % 9,2k pisu gutxiegi izan du, baina adin bereko gizonen kopurua % 3,1 izan da.

Grafico 10
Peso insuficiente (%) por sexo y edad

10. grafikoa
Pisu gutxiegia (%), sexua eta adina bereizita



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta.

Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

Entre los hombres, la prevalencia más alta de peso insuficiente se concentró en los del grupo socioeconómico más desfavorecido, mientras que entre las mujeres a medida que el nivel socioeconómico era más elevado aumentaba la prevalencia de peso insuficiente.

Gizonen artean, pisu gutxiegia izan duen pertsona kopuru handiena aukera gutxien izan duen talde sozioekonomikoan eman da; emakumeen artean, aldiz, maila sozioekonomikoak gora egin ahala pisu gutxiegia izan duen pertsona kopurua handitu da.

2.2.5. Accidentes

El 7% de los hombres y el 6% de las mujeres han sufrido algún accidente en el último año, según la Encuesta de Salud de 2007. Entre los hombres, los más jóvenes han sufrido mayor proporción de accidentes; sin embargo, entre las mujeres se aprecia la incidencia más elevada en las edades extremas, en las menores de 15 años, y más acusada en aquellas que superan los 65 años.

La proporción de accidentes y su distribución por sexo y grupos de edad se está manteniendo estable a lo largo de los años.

2.2.5. Istripuak

Gizonen % 7k eta emakumeen % 6k azken urtean istripuren bat izan du, 2007ko inkestaren arabera. Gizonen artean, gazteenek izan dute istripu gehien, baina emakumeen artean muturreko adin-taldeetan eman da istripu gehien: 15 urtetik beherako emakumeen artean eta, are gehiago, 65 urtetik gorakoan artean.

Istripu kopurua eta horrek sexua eta adin-taldea bereizita duen banaketa nahiko egonkor mantendu da urteak igaro ahala.

Tabla 6
Prevalencia de accidentes (%) por sexo y grupos de edad

	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	7,6	8,0	7,8	7,4	5,0	6,1	6,6	6,1
≤15	10,8	11,0	12,0	8,8	5,3	9,3	6,4	7,1
16-24	9,7	11,3	11,6	11,6	5,0	6,2	5,5	5,4
25-44	7,6	8,6	8,5	7,7	3,3	4,3	6,3	4,2
45-64	5,4	5,7	5,3	6,8	5,0	5,1	5,7	5,6
≥65	3,5	3,5	3,2	3,8	7,9	8,1	9,3	9,1



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritz. Osasun Inkesta.

Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

6. taula
Istripu kopurua (%), sexua eta adin-taldea bereizita

Gráfico 11
Prevalencia de accidentes (%) por sexo y grupos de edad

11. grafikoa
Istripu kopurua (%), sexua eta adin-taldea bereizita



2.2.6. Población fumadora

El consumo de tabaco constituye un importante factor de riesgo de enfermedad y de muerte como lo demuestran los motivos de fallecimientos de 2007 en la C.A. de Euskadi, ya que el 23% de los de los hombres y el 3% de los de las mujeres fueron atribuibles al tabaco.

El 29% de los hombres y el 21% de las mujeres fuman habitualmente. Tanto en uno como en otro sexo, el grupo de edad con mayor porcentaje de fumadores fue el de 25 a 44 años. La proporción de mujeres de 16 a 24 que fuman superó a la de los hombres de esa edad.

2.2.6. Erretzaileak

2007. urtean Euskal AEn izan diren heriotzen arrazoiak kontuan hartuta, tabakoaren kontsumoa gaixorik egoteko eta hiltzeko arrisku-faktore handia izan da: hildako gizonen % 23 eta emakumeen % 3 tabakoari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik hil dira.

Gizonen % 29k eta emakumeen % 21ek ohikotasunez erretzen du. Gizonen nahiz emakumeen artean, erretzaile gehien izan duen adin-taldea 25 eta 44 urte artekoa izan da. Erretzen duen 16 eta 24 urte bitarteko emakume kopurua adin bereko gizonena baino handiagoa izan da.

En 2007 el tabaquismo entre los hombres ha vuelto a disminuir, tendencia que se está manteniendo en los últimos años. Este descenso se ha apreciado en todos los grupos de edad, con la única excepción en los de edad más avanzada. Aunque la prevalencia del tabaquismo en las mujeres se ha mantenido estable, hay que destacar el paulatino descenso en las mujeres más jóvenes y el incremento en las de 45 a 64 años.

2007. urtean, gizonen arteko tabakismoa berriz jaitsi da; azken urteetan, gainera, joera hau mantentzen ari da. Jaitsiera hori adin-talde guztietan eman da, adin-talde nagusienean izan ezik. Emakumeen artean tabakismoa berdin mantendu da, baina azpimarratzekoa da emakume gazteenen artean pixkanaka tabakoa kontsumitzen duen pertsona kopurua txikitzen joan dela eta 45-64 urte arteko pertsonen artean gehitu dela.

Tabla 7
Población fumadora (%) por sexo y grupos de edad



	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	39,5	33,9	31,4	29,1	22,7	23,1	21,1	21,1
16-24	37,7	32,8	29,2	22,9	28,6	32,1	28,1	25,5
25-44	45,9	42,8	38,6	35,6	38,9	38,3	32,7	31,8
45-64	38,1	31,7	32,0	30,2	10,6	13,6	17,2	20,8
≥65	26,2	16,8	15,5	16,3	3,3	2,3	2,9	3,3

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Osasun Inkesta.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

7. taula
Erretzaile kopurua (%), sexua eta adin-taldea bereizita

Gráfico 12
Población fumadora (%) por sexo y grupos de edad

12. grafikoa
Erretzaile kopurua (%), sexua eta adin-taldea bereizita



2.2.7. Población exfumadora

El abandono del tabaquismo se hace patente con el incremento continuado de la población que se declara exfumadora, el 22% de los varones y el 13% de las mujeres componen este colectivo. Uno de cada tres hombres que supera los 45 años ha dejado de fumar. En las mujeres el abandono del tabaquismo se inicia antes, a partir de los 25 años (17%).

2.2.7. Erretzaile ohiak

Tabakismoa garrantzia galtzen ari da, biztanle gero eta gehiagok erretzaile ohia dela esan duelako: gizonen % 22 eta emakumeen % 13 sartzen da talde honetan. 45 urtetik gorako hiru gizonetik batek erretzeari utzi dio. Emakumeen artean tabakismoa gazteagotik hasten da, 25 urtetik aurrera (% 17).

Tabla 8
Población exfumadora (%) por sexo y edad

8. taula
Erretzaile ohien kopurua (%), sexua eta adina bereizita


	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	18,2	19,6	20,4	21,8	6,1	8,6	10,2	13,2
16-24	5,5	5,6	3,7	3,4	4,3	4,4	6,8	3,5
25-44	14,9	14,2	13,1	11,8	11,1	14,0	14,7	17,2
45-64	23,3	27,0	28,9	31,9	3,7	8,8	11,6	18,1
≥65	36,1	37,3	37,7	38,6	1,7	2,3	3,2	4,8

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Osasun Inkesta.

Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

Gráfico 13
Población exfumadora (%) por sexo y edad

13. grafikoa
Erretzaile ohien kopurua (%), sexua eta adina bereizita



2.2.8. Población bebedora de riesgo

La lucha contra el uso nocivo de alcohol constituye una prioridad en materia de salud pública. El consumo excesivo de alcohol aumenta el riesgo de padecer cirrosis hepática, determinados tipos de cáncer, hipertensión arterial, enfermedad cerebrovascular y favorece la aparición de malformaciones congénitas. Además, genera problemas de tipo familiar, laboral y social, y es el responsable de una parte importante de los accidentes, principalmente de tráfico.

En 2007, el 12% de los hombres y el 5% de las mujeres se clasificaron como bebedores de riesgo; en este colectivo se encuadran los grandes bebedores y los bebedores excesivos. En ambos sexos esa proporción fue mayor entre los 45 a 64 años.

2.2.8. Edale arriskutsuak

Alkoholaren erabilera kaltegarriaren aurkako borroka osasun publikoaren lehentasunetako bat da. Alkohol gehiegi kontsumitzen bada gibleko zirrrosia, minbizi mota batzuk, arteria-hipertentsioa eta garuneko hodietako gaixotasunen bat edukitzeko arriskua areagotu egiten da eta sortzetiko malformazioak ager daitezke. Gainera, familian, lanean eta gizartean arazoak sortzen ditu eta istripu gehienek (batez ere trafiko istripuen) eragile nagusia da.

2007. urtean, gizonen % 12 eta emakumeen % 5 edale arriskutsuak izan dira. Hain zuzen, talde honetan sartzen dira asko edaten duten pertsonak eta gehiegi edaten dutenak. Bi sexuetan, ehuneko handiena 45-64 urte arteko pertsonen artean eman da.

Es destacable la evolución de los últimos años con un descenso paulatino en ambos sexos ya que la proporción de bebedores de riesgo casi se ha reducido a la mitad.

Asimismo, parece guardar relación el grupo social y el consumo de alcohol en las mujeres, ya que las mujeres que pertenecían a los grupos sociales más favorecidos presentaron una mayor proporción de bebedoras de riesgo.

Alabaina, azken urteetan arazo hori izan duen pertsona kopurua pixkanaka txikitu egin da bai gizonen bai emakumeen artean, edale arriskutsuen ehunekoa ia erdira jaitsi baita.

Halaber, emakumeen artean talde soziala eta alkoholaren kontsumoa lotuta daudela ematen du; aukera gehien duten talde sozialetako emakumeen artean edale arriskutsu gehiago izan da.

Tabla 9
Población bebedora de riesgo (%) por sexo y grupos de edad



	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	21,7	17,3	14,0	11,7	8,5	6,1	6,6	4,8
16-24	7,2	6,6	6,8	5,0	4,2	3,9	4,2	3,9
25-44	24,2	14,9	11,7	4,3	11,4	7,2	7,0	4,5
45-64	27,4	27,6	21,3	21,9	9,9	8,4	8,7	6,8
≥65	22,5	13,8	12,9	14,5	4,8	2,4	5,1	3,2

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Osasun Inkesta.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

9. taula
Edale arriskutsuak (%), sexua eta adin-taldea bereizita

Gráfico 14
Población bebedora de riesgo (%) por sexo y grupos de edad

14. grafikoa
Edale arriskutsuak (%), sexua eta adin-taldea bereizita



2.2.9. Hábitos alimentarios

Son cada vez más los trabajos de investigación que ponen de manifiesto el decisivo papel que juegan los hábitos alimentarios en el nivel de salud de los individuos. Los expertos en salud reconocen que la alimentación adecuada es un instrumento de protección de la salud y prevención de enfermedades.

2.2.9. Elikatzeko ohiturak

Gero eta ikerketa lan gehiagok erakusten dute elikatzeko ohiturek garrantzi handia dutela banakoen osasunean. Osasuneko adituen esanetan, elikadura egokiak osasuna babesten du eta gaixotasunei aurrea hartzen lagun dezake.

La mejor manera de alcanzar un estado nutricional adecuado es incorporar una amplia variedad de alimentos a la dieta diaria y semanal. La Sociedad Española de Nutrición Comunitaria (SEC) elaboró en 2004 una nueva Pirámide de Alimentación, la cual se ha convertido en referencia en materia nutricional.


La pirámide muestra en la base los alimentos que deben ser ingeridos diariamente como son los derivados de los cereales y patatas, verduras, hortalizas, frutas, leche y derivados lácteos y aceite de oliva. Otros alimentos, concretamente, legumbres, frutos secos, pescados, huevos y carnes magras, se deben tomar alternativamente varias veces por semana. Por último y en la cúspide de la pirámide, se aconseja moderar el consumo de carnes grasas, pastelería, bollería, azúcares y bebidas refrescantes. También se recomienda ingerir como mínimo dos litros de agua diarios y la realización, de al menos, 30 minutos de actividad física.

Nutrizio-egoera egokia izateko biderik onena eguneko eta asteko dietan elikagai mota ezberdinak sartzea da. Espainiako Erkidegoaren Nutrizio Sozietateak (SEC) 2004. urtean Elikagaien piramide berria egin zuen, eta nutrizioaren esparruan erreferentzia bihurtu da.

Piramidearen oinarrian egunero hartu behar diren elikagaiak daude: zerealen eta pataten eratorriak, barazkiak, frutak, esnea, esnekiak eta oliba olio. Beste elikagai batzuk, hau da, lekaleak, fruitu lehorrak, arrainak, arrautzak eta gihar-haragiak, astean batzutan hartu behar dira, aldizka. Azkenik, eta piramidearen goiko aldean, haragi koipetsuak, gozogintza, opildegia, azukreak eta edari freskagarriak daude. Horrez gain, egunean gutxienez bi litro ur edatea eta 30 minutuko jarduera fisikoa egitea gomendatzen da.

Gráfico 15
Población de 16 y más años (%) según consumo de alimentos

15. grafikoa
16 urteko eta gehiagoko biztanleak (%), kontsumitutako elikagaien arabera



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

De los alimentos que aconseja la SEC para consumir a diario, los datos de la Encuesta de Salud señalan que un 85% de la población consume diariamente lácteos y pan o cereales, y el 65% fruta. En cambio, el consumo diario de verdura se reduce a un 30% de la población, equiparable al porcentaje del que toma dulces a diario.


De entre los otros alimentos que deben tomarse varias veces por semana, destaca el consumo de carne: el 50% de la población come carne más de 3 veces a la semana; le sigue la pasta, arroz y patatas, el pescado y las legumbres.

SEC sozietateak egunero kontsumitzeko gomendatzen dituen elikagaiei dagokienez, Osasunari buruzko Inkestan jasotako datuen arabera biztanleen % 85ek egunero kontsumitzen ditu esnekiak eta ogia edo zerealak, eta % 65ek frutak kontsumitzen ditu. Eguneko barazki kontsumoari dagokionez, aldiz, % 30ra jaitsi da elikagai horiek kontsumitzen dituzten biztanleen kopurua; egunero gozoak jaten dituztenen antzeko ehunekoa dute hauek.

Astean batzutan hartu behar diren elikagai guztien artean haragiaren kontsumoa da nagusi: biztanleen % 50ak astean 3 aldiz baino gehiagotan jaten du haragia. Ondoren kontsumo altuenak pastak, arrozak eta patatak, arrainak eta lekaleak dute.

Gráfico 16
Población de 16 y más años (%) según consumo
de alimentos por sexo

16. grafikoa
16 urteko eta gehiagoko biztanleak (%),
kontsumitutako elikagaien eta sexuaren arabera



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Osasun Inkesta.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

Por otro lado, se aprecian diferencias de género en los hábitos alimenticios; los hombres parecen ser más proclives al consumo de carne y embutidos mientras que las mujeres tienden más a preferir comer frutas, verduras y pescado.

Bestalde, elikatzeko ohituretan generoaren arabera bereizketa ematen da. Gizonek jaten dute haragi eta hestebete gehien; emakumeek nahiago dute frutak, barazkiak eta arraina jan.

2.2.10. Hábitos de sueño

El sueño afecta a las funciones diarias y a la actividad física y mental. El dormir menos horas de las necesarias puede ocasionar serios problemas de salud, como depresión, ansiedad, hipertensión y graves problemas de crecimiento. Asimismo, además de otras evidencias, un estudio realizado por la doctora Kristen G. Hairston⁷ revela que los adultos jóvenes que duermen muy poco o demasiado tienden, con el tiempo, a una mayor acumulación de grasa abdominal, lo que eleva el riesgo de sufrir enfermedades como la diabetes, la hipertensión y las cardiopatías. Los resultados de este estudio confirman la idea de que los hábitos de sueño afectan al peso y la salud en general: «dormir es una parte importante de la salud».

El tiempo medio social dedicado al sueño en la C.A. de Euskadi, según datos de la última Encuesta de Presupuestos de Tiempo⁸, es de 8 horas y 47 minutos, un minuto menos del que se destina en el resto del Estado (8 horas y 48 minutos en el año 2003).

2.2.10. Loaren ohiturak

Loak eguneko eginkizunetan eta jarduera fisiko eta mentalean du eragina. Behar baino ordu gutxiago lo eginez gero osasun arazo larriak sor daitezke: depresioa, antsietatea, hipertentsioa eta hazteko arazo larriak. Halaber, beste ebidentzia batzuez gain, Kristen G. Hairston doktorearen⁷ ikerlan batean honako datua jaso da: oso gutxi edo gehiegi lo egiten duten heldu gazteek, denbora igaro ahala, sabelean gantz gehiago pilatzeko joera izaten dute eta horrek handitu egiten du diabetesa, hipertentsioa eta kardiopatiak bezalako gaixotasunak edukitzeko arriskua. Ikerlan horren emaitzek berretsi dute loaren ohiturek oro har pertsonen pisuan eta osasunean eragina dutela: «lo egitea osasunaren atal garrantzitsua da».

Denbora Aurrekontuen azken Inkestako⁸ datuen arabera, Euskal AEn loari eskainitako batez besteko denbora soziala 8 ordu eta 47 minutu da, Estatuan eskainitakoa baino minutu bat laburragoa (8 ordu eta 48 minutu, 2003ko udazkenean).

⁷ Doctora Kristen G. Hairston, de la Escuela de Medicina de la Wake Forest University, en Winston-Salem Carolina del Norte.

⁸ La Encuesta de Presupuestos de Tiempo (EPT) en la C.A. de Euskadi la realiza Eustat cada 5 años (últimos datos disponibles 2008) y en el resto del Estado el INE con el nombre de Encuesta de Empleo de Tiempo (ETT) (los datos más recientes corresponden al año 2003).

⁷ Doktore Kristen G. Hairston, Iparraldeko Karolinako Winston-Salemen dagoen Wake Forest University-ko Medikuntza Eskolako.


⁸ Eustatek 5 urtean behin egiten du Euskal AEko Denbora Aurrekontuen Inkesta (DAI). Azken datuak 2008koak dira. Estatuan EINek egiten du inkesta hau, baina beste izen batekin: Encuesta de Empleo de Tiempo (ETT). Estatuko daturik berrienak 2003koak dira.

Asimismo, el tiempo dedicado al sueño no presenta grandes cambios en el tiempo. Ahora se duerme tres minutos más que en 2003; y continúan siendo el domingo y sábado, los días por excelencia de la semana, en los que más tiempo se destina a dormir (más de 9 horas), y el viernes con 8 horas y 28 minutos el que menos (si bien ha aumentado en 7 minutos respecto a 2003).

Era berean, denborak aurrera egin ahala loaldian ez da al-daketa handirik eman. Orain, 2003an baino hiru minutu luze-agoa da loaldia. Oraindik larunbatean eta igandean egiten dugu lo gehien (9 ordutik gora); baina ostiraletan egiten dugu lo gutxien: 8 ordu eta 28 minutu (hala ere, datu hau 7 minutu luzatu da 2003. urtearekin alderatuta).

Gráfico 17
Tiempo medio de horas de sueño por día


17. grafikoa
Egunean lo egindako ordu kopuruaren batez besteko denbora



Iturria: Eustat. Denbora Aurrekontuen Inkesta.
Fuente: Eustat. Encuesta de Presupuestos de Tiempo.

Gráfico 18
Tiempo medio de horas de sueño por edad

18. grafikoa
Lo egindako ordu kopuruaren batez besteko denbora, adinaren arabera



Iturria: Eustat. Denbora Aurrekontuen Inkesta.
Fuente: Eustat. Encuesta de Presupuestos de Tiempo.

Las necesidades de sueño dependen de diversos factores, uno de ellos es la edad. El número de horas necesarias de sueño diario varía con la edad y con la persona. Así, según los datos de la EPT, las personas de 65 y más años son las que más duermen, destinan casi 10 horas diarias para dormir, en tanto que las de 25-44 años son las que menos (8 horas y 22 minutos); en cualquier caso, todos los tramos de edad considerados superan las 7-8 horas diarias que es aconsejable dormir para una buena salud.

Lo egin behar den ordu kopurua faktore jakin batzuek ezartzen dute, adinak adibidez. Adinaren eta pertsonaren arabera ordu kopuru bat edo beste egin behar da lo egunean. DAlren arabera, 65 urteko eta gehiagoko pertsonak egiten dute lo gehien, ia 10 ordu egiten dituzte lo egunean. Baina lo gutxien egiten duten pertsonak 25-44 urtekoak dira (8 ordu eta 22 minutu). Nolanahi ere, aztertu diren adin-tarte guztietan gaitzen da osasun ona edukitzeko egunean gomendatzen den 7-8 orduko loaldia.

3

OSASUN EGOERA

ESTADO DE SALUD

3.1. ESPERANZA DE VIDA

La esperanza de vida es uno de los indicadores básicos para determinar el nivel de bienestar existente en un país o región. En el caso de la C.A. de Euskadi, tanto los hombres como las mujeres han experimentado un aumento constante de su esperanza de vida¹. La esperanza de vida de las mujeres se ha incrementado en 7,4 años respecto a hace 30 años y la de los hombres en 7,6 años, lo que supone que los varones y las mujeres han ganado como promedio 3 meses de vida cada año, hasta alcanzar los 77,2 años y los 84,3 años, respectivamente, en 2005. La esperanza de vida en Euskadi se sitúa entre las mayores del mundo.

Asimismo, las proyecciones de esperanza de vida hasta 2020² evidencian que la población vasca vivirá aún más años, llegando las mujeres a los 87,3 años y los hombres hasta los 81,2 años, lo que reduce la diferencia entre las es-


3.1. BIZI-ITXAROPENA

Herrialde edo eskualde baten ongizate maila neurtzeko funtsezko adierazlea da bizi-itxaropena. Euskadin, bai gizonen bai emakumeen bizi-itxaropenak etengabe hoberantz egin dute¹. Emakumeen bizi-itxaropena duela 30 urtekoa baino 7,4 urte luzeagoa da, eta gizonena 7,6 urte luzeagoa; hau da, gizonek eta emakumeek, batez beste, 3 hilabete gehiago bizi dira urtean. 2005. urtean gizonen bizi-itxaropena 77,2 urtekoa izan da eta emakumeena 84,3 urtekoa. Euskadiko bizi-itxaropena munduko altuenetakoa da.

Halaber, 2020. urtera arteko bizi-itxaropenaren proiektzioek², erakusten dute EAEko biztanleak oraindik urte gehiago biziko direla: emakumeak 87,3 urte izatera iritsiko dira eta gizonak 81,2 urte. Horrela, bi sexuen bizi-itxaropenen arteko aldea

Gráfico 1
Evolución de la esperanza de vida
del nacimiento por sexo

1. grafikoa
Jaiotzako bizi-itxaropenaren bilakaera,
sexuak bereizita



Iturria: Eustat. Proiektzio Demografikoak 2020.
Fuente: Eustat. Proyecciones Demográficas 2020.

¹ La esperanza de vida al nacer representa el número de años que, por término medio, viviría una persona de una determinada edad si estuviera sujeta durante el resto de la vida a la mortalidad de la época.

² Fuente: Eustat. Proyecciones Demográficas 2020.

¹ Jaiotzako bizi-itxaropena esaten zaio adin jakin bateko pertsona bat batez beste biziko den urte kopuruari, baina pertsona hori jaio zen aldiko heriokortasuna mantentzen bada bizi den bitartean.

² Iturria: Eustat. Proiektzio Demografikoak 2020.

peranzas de vida de ambos sexos de 7,4 años en 2005 a 6 años en 2020. Esta esperanza de vida, unida a las proyecciones de natalidad, supondrá que los mayores de 65 años representarán el 22% de la población de la C.A. de Euskadi en 2020.

Este incremento de la esperanza de vida supone un cambio de la estructura de población en el que adquirirán mayor protagonismo los mayores; este cambio puede tener importantes consecuencias sanitarias y sociales, entre las que podemos adelantar: un ascenso de la morbilidad por enfermedades crónicas, un incremento de las personas con discapacidad y dependencia y una demanda mayor de atención socio-sanitaria así como también de otros sectores, como el inmobiliario (adaptación de la vivienda a situaciones de dependencia), sin olvidar la incidencia que estos cambios tendrá sobre la sostenibilidad del sistema y la financiación del envejecimiento.

En este contexto de países desarrollados con altas esperanzas de vida, los indicadores de salud clásicos, basados únicamente en la mortalidad, resultan limitados para describir la evolución del estado de salud de la población. Es necesario conocer si la mejora continua de la mortalidad viene acompañada también de un aumento en el nivel de salud de la población, o si por el contrario es a costa de una mayor morbilidad y discapacidad. Para ello es necesario utilizar indicadores de salud que tengan en cuenta no sólo la mortalidad de una población sino también la experiencia de morbilidad o incapacidad. La esperanza de vida libre de incapacidad (EVLI) y



7,4 urtekoa izan da 2005. urtean eta 6 urtekoa izango da 2020. urtean. Bizi-itxaropen hori eta jaiotza tasaren gainean egindako proiektzioak kontuan hartuta, Euskadiko 65 urtetik gorako pertsonak biztanle guztien % 22 izango dira 2020. urtean.

Bizi-itxaropenaren hobetze horren ondorioz biztanleen egitura aldatu egin da: adinekoek protagonismo handiagoa izango dute. Eta horrek osasunean eta gizartean ondorio garrantzitsuak izan ditzake, besteak beste hauek aurreratu ditzakegu: gaixotasun kronikoen bidezko erikortasunak gora egingo du, ezintasuna eta menpekotasuna duten pertsona gehiago egongo da, gizarte eta osasun arreta jasotzeko eskaria handitu egingo da, baita beste sektore batzuetan ere, higiezinaren sektorean adibidez (etxebizitzak menpekotasun egoerara egokitu behar dira). Horrez gain, aipatutako aldaketek eragina izango dute sistemaren iraunkortasunean eta zaharztearen finantzaketan.

Bizi-itxaropen luzea duten herrialde garatueta osasunaren ohiko adierazleak, soilik heriotza tasan oinarritzen direnak, mugatuak dira biztanleen osasun egoeraren bilakaera deskribatzeko. Heriotza tasaren etengabeko hobekuntzarekin batera biztanleen osasuna ere hobetzen den jakin behar da edo, ostera, biztanleen erikortasuna eta ezintasuna areagotzen den. Horretarako, hain zuzen, biztanleen heriotza tasaz gainera haien erikortasuna edo ezintasuna ere kontuan hartzen duten osasunaren adierazleak erabili behar dira. Ezintasunik gabeko bizi-itxaropena (EGBI) eta gaixotasun kronikorik gabeko bizi-itxaropena (GKGBI) izeneko adierazleak

Gráfico 2
Evolución de la Esperanza de Vida, Esperanza de Salud Libre de Incapacidad y Esperanza de Salud Libre de Enfermedades Crónicas

2. grafikoa
Osasun oneko bizi-itxaropenaren, ezintasunik gabeko bizi-itxaropenaren eta gaixotasun kronikorik gabeko bizi-itxaropenaren bilakaera



la esperanza de vida libre de enfermedades crónicas (EVLEC) son dos indicadores que permiten un acercamiento de este tipo. De hecho, entre los principales objetivos del Plan de Salud 2002-2010 se encuentra el de mejorar la salud de la población, aumentando la duración de la vida y el número de años de vida saludable.

La esperanza de vida libre de discapacidad se situó en el año 2006-2007 en 71,7 años en hombres y 77,4 en mujeres, y a lo largo de estos años ha aumentado la edad a la que se llega libre de discapacidad. Es decir, durante el período analizado el aumento de los años de vida viene acompañado de un aumento de los años de vida que se viven libre de incapacidad, lo que significa que se ha producido una compresión de la morbilidad.

Sin embargo, respecto a la esperanza de vida libre de enfermedades crónicas (54,5 años en los hombres y 58,3 en las mujeres), si bien aumenta en los dos sexos durante el total del período, en el último período el tiempo que se espera vivir libre de incapacidad se reduce, lo que unido al aumento de la esperanza de vida provoca que aumente el tiempo que se vive con una enfermedad crónica.

Si tenemos en cuenta las principales causas de defunción, los tumores, primera causa de muerte en la C.A. de Euskadi, son, por lo tanto, la principal amenaza a los años de esperanza de vida. Si se consiguiera eliminar totalmente esta causa de muerte, los hombres prolongarían algo más de 4 años su vida y las mujeres algo más de tres años y medio. Más débiles son, en cambio, los detrimentos provocados por las causas externas de defunción, que restan algo más de un año de vida a los hombres y cerca de 4 meses a las mujeres.

esker, mota horretako hurbilketa egin daiteke. Izan ere, Osasun Planaren (2002-2010) helburu nagusienetako bat biztanleen osasuna hobetzea da, bizia eta osasun dauden urte kopurua luzatuz.



2006-2007 urteetan, ezintasunik gabeko bizi-itxaropena 71,7 urtekoa izan da gizonentzat eta 77,4 urtekoa emakumeentzat; urte horietan zehar, gainera, ezintasunik gabe bizitako urte kopurua luzatu egin da. Hots, aztertutako aldian, bizitako urte kopurua luzatzearekin batera ezintasunik gabe bizitako urte kopurua ere luzatu da eta, ondorioz, erikortasuna murriztu da.

Baina gaixotasun kronikorik gabeko bizi-itxaropena (54,5 urte gizonak eta 58,3 urte emakumeak) aldi horretan bi sexuen artean luzatu arren, azken aldian ezintasunik gabe bizitzea espero den denbora laburtu egin da. Hori kontuan hartuta eta bizi-itxaropena luzatu dela ikusita, gaixotasun kronikoarekin bizitako denbora luzatu egin da.

Heriotza dakarten arrazoiak aztertzean, Euskal AEn tumorak dira heriotza gehien eragiten dutenak. Bada, horixe da bizi-itxaropena arriskuan jartzen duen arrazoi nagusia. Heriotza dakarren arrazoi hori erabat ezabatuko balitz, gizonak 4 urtetik gora biziko lirakeke gehiago eta emakumeak hiru urte eta erditik gora gehiago. Ez dute hain eragin handia, aldiz, heriotzen kanpoko eragileek; gizonei urtebete eta pixka bat gehiago kentzen diete eta emakumeei 4 hilabete inguru.

Gráfico 3
Esperanza al nacimiento por causa

3. grafikoa
Jaiotzako bizi-itxaropena, arrazoiaren arabera



3.2. MORTALIDAD

Los datos de mortalidad se recogen en la Estadística de Defunciones, de la cual se tiene información desde 1861, y junto a la de Nacimientos y Matrimonios constituyen el Movimiento Natural de la Población.

La tasa bruta de mortalidad y la tasa de mortalidad infantil han sido extensamente usadas por la comunidad internacional como indicadores de la salud de la población y, de manera indirecta, del desarrollo socioeconómico.

Las tasas de mortalidad de la C.A. de Euskadi por 1.000 habitantes a lo largo de todo el período 1975-2008 han oscilado entre un 6,4 y un 9,2, inferiores al 15, límite por debajo del cual se considera baja la tasa de mortalidad.

Todos los países de la OCDE-Europa (23) han reducido los índices de mortalidad infantil en los últimos trece años (1996-2008), y también la C.A. de Euskadi, que con una tasa de 4,3 por 1.000 en 2008 se aproxima más a la de los países de la OCDE-Europa con las tasas más bajas.

Desde hace más de una década en la C.A. de Euskadi los fallecimientos por causa de enfermedades circulatorias han descendido a la inversa de los tumores, que han ido en aumento; esto mismo también viene sucediendo desde 1980 en el promedio de los países de la OCDE, y ha supuesto que en el año 2008 los tumores sean la principal causa de fallecimiento en la C.A. de Euskadi. Debido a la alta frecuencia de estos dos grupos de enfermedades en la mortalidad, se han introducido como áreas prioritarias del Plan Vasco de Salud 2002-2010.

3.2.1. Evolución

Las tasas de mortalidad más bajas de estos últimos dieciocho años (1991-2008) corresponden a los primeros años del período, 1991-1994, con una tasa de 8 defunciones por 1.000 habitantes; esta proporción aumenta en los años sucesivos alcanzando los valores más altos, 9,2 por 1.000 habitantes, en los años 2003 y 2005. Los 19.437 fallecimientos acaecidos en 2008 sitúan a la C.A. de Euskadi con una tasa de mortalidad de 9 por 1.000 habitantes.

Este aumento de las tasas de mortalidad es consecuencia del aumento de la población en edad avanzada; la población vive mayor número de años y la esperanza de vida es mayor, consecuencia, entre otras, de los avances realizados en la prevención y en el tratamiento de las enfermedades.

A lo largo de todo este período (1991-2008), Álava fue el territorio de la C.A. de Euskadi con la tasa de mortalidad más baja, mientras que Bizkaia registró la más alta.

Seis de cada diez muertes son causadas por los tumores (29,9%) y enfermedades del sistema circulatorio (29,3%). A más distancia se sitúan en tercer y cuarto lugar los fallecimientos por causa de enfermedades del sistema respiratorio (10%) y sistema digestivo (5%).

Durante todo el período 1996-2006 las enfermedades del sistema circulatorio han sido la principal causa de fallecimiento; ahora bien la tendencia de los últimos años ha estado marcada por un descenso del número de defunciones por

3.2. HERIOTZA TASA

Heriotzen estatistikan jasotzen dira heriotza tasari buruzko datuak. 1861. urteaz gero egiten da estatistika hori, eta jaio-tzen eta ezkontzen estatistikekin batera Biztanleriaren Berrezko Mugimendua osatzen du.

Heriotza tasa gordina eta haurren heriotza tasa nazioartean izugarri erabili izan dira biztanleriaren osasunari buruzko adierazleak konparatzeko eta, zeharka izan arren, garapen sozioekonomikoa konparatzeko.

Euskal AEn, 1975-2008 urteen artean, heriotza tasa hau izan da: 1.000 biztanleko 6,4 eta 9,2 hildako. Tasa hori 15etik beherakoa izan da, eta muga horretatik behera dauden tasak heriotza tasa txikiak bezala ezagutzen dira.

ELGEko-Europako herrialde guztietan (23) txikitu dira haurren heriotza indizeak azken hamahiru urteetan (1996-2008); baita Euskal AEn ere, hemen 2008. urtean 1.000 biztanletik 4,3 hil baitira eta tasa horrekin ELGEko-Europan tasa txikiak izan dituzten herrialdeen tasetatik hurbil geratu da.

Hamarkada bat baino denbora luzeagotik, Euskal AEn zirkulazioari lotutako gaixotasunen ondoriozko heriotza kopurua txikitu egin da; tumoreekin kontrako gertatu da, hauen ondoriozko heriotza kopurua handitzen joan da. ELGEko herrialdeen batezbestekoan ere horixe bera ari da gertatzen 1980. urteaz gero. 2008. urtean tumoreak izan dira Euskal AEn heriotza gehien eragin duten gaixotasunak. Izan ere, gaixotasun horiek heriotza ugari eragiten dituztenez, lehentasunezko arlo moduan sartu dira 2002-2010 Osasunaren Euskal Planean.

3.2.1. Bilakaera

Azken hemezortzi urteetako (1991-2008) heriotza tasa txikiak aldi horretako lehenengo urteetan eman dira (1991-1994): 1.000 biztanleko 8 hildako egon ziren. Hurrengo urteetan tasa horrek gora egin zuen eta 2003 eta 2005 urteetan balio handiagoetara heldu zen: 1.000 biztanleko 9,2 hildako. 2008. urtean 19.437 hildako izan dira; horrela, Euskal AEn 1.000 biztanleko 9 pertsonako heriotza tasa izan da.

Heriotza tasak gora egin du adineko biztanle kopurua handitu delako, biztanleak urte gehiago bizi direlako eta bizi-itxaropena luzeagoa delako. Hain zuzen, gaixotasunei aurrea hartzeko eta horiek tratatzeko egin diren aurrerapenak dira hobetze horren eragileak.

Aldi horretan zehar (1991-2008), Araba izan da Euskal AEko heriotza tasa txikiena izan duen lurraldea; eta Bizkaia, aldiz, heriotza tasa handiena izan duena.

Hamar heriotzatik sei tumoreen (% 29,9) eta zirkulazio sistemaren gaixotasunen (% 29,3) ondoriozkoak dira. Hirugarren eta laugarren eragileak urrunago geratzen dira: arnas sistemaren gaixotasunen (% 10) eta digestio sistemaren (% 5) ondoriozko heriotzak.


Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

5. taula
Depresioaren eta antsietatearen sintomak dituen pertsona kopurua (%)

Gráfico 18
Prevalencia de síntomas de depresión y ansiedad

18. grafikoa
Depresioaren eta antsietatearen sintomak dituen pertsona kopurua



En un intento de aproximación al fenómeno del suicidio⁹, la Encuesta de Salud aportó los siguientes datos: el 3,9% de los hombres y el 4,4% de las mujeres declararon en 2007 haber pensado seriamente en algún momento de su vida en la posibilidad de suicidarse; sin embargo, esta proporción se invierte en el caso de las defunciones por suicidio, donde de cada 2,6 hombres se suicidó una mujer en 2007, según datos de la Estadística de Defunciones.


Por otra parte, la mayor prevalencia de ideas suicidas se observó en las personas de 25 a 44 años, y la menor en el colectivo de 65 y más años. En el caso de las mujeres la prevalencia de ideas suicidas aumentaba conforme se acercaban a los grupos socioeconómicos más desfavorecidos.

Buru-hilketaren fenomenoak hobeto ezagutzeko asmoz⁹, Osasunari buruzko Inkestak honako datuak eman ditu: gizonen % 3,9k eta emakumeen % 4,4k 2007. urtean esan du noizbait serio pentsatu duela bere buruaz beste egitea; baina ehunekoak aldatu egiten dira buru-hilketaren ondoriozko heriotza kopurua aintzat hartzean, 2007. urtean 2,6 gizoneko emakume batek egin baitu bere buruaz beste. Horrela jaso da Heriotzen estatistikan.

Beste alde batetik, bere buruaz beste egitea pentsatu duen pertsona kopuru handiena 25 eta 44 urte artean eman da, eta kopuru txikiena 65 urteko eta gehiagoko pertsonen artean. Bere buruaz beste egitea pentsatu duen emakume kopuruak gora egin du aukera gutxien zuten talde sozioekonomikoentara hurbildu ahala.

Gráfico 19
Porcentaje de población que ha pensado alguna vez suicidarse

19. grafikoa
Noizbait bere buruaz beste egitea pentsatu duen biztanle kopurua, ehunekotan



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunari buruzko Inkesta 2007.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud 2007.

3.3.3. Limitación crónica de la actividad

La limitación crónica de la actividad refleja las consecuencias de la morbilidad crónica y de limitación en la capacidad funcional de las personas. La Encuesta de Salud¹⁰ de la C.A. de Euskadi recoge la existencia o no de una limitación crónica para realizar las funciones normales en cada edad y sexo, así como el origen de la misma.

3.3.3. Jardueraren mugaketa kronikoa

Jardueraren mugaketa kronikoak pertsonen erikortasun kronikoaren eta ahalmen funtzionalaren mugaketaren ondorioak jasotzen ditu. Euskal AEko Osasunari buruzko Inkestan¹⁰, adin bakoitzean eta sexu bakoitzean ohikoak diren eginkizunak gauzatzeko mugaketa kronikorik dagoen jasotzen da, baita horren jatorria ere.

⁹ Las preguntas que se incluyeron en la Encuesta de Salud, año 2007, relativas al suicidio fueron: «¿En algún momento de su vida ha llegado a pensar seriamente en la posibilidad de suicidarse, de quitarse la vida?»

¹⁰ En la Encuesta de Salud 2007 se introducen varias medidas que permiten valorar la dependencia de las personas, así como la necesidad de cuidados.

⁹ Osasunari buruzko Inkestan, 2007. urtean, buru-hilketari buruzko galderak jaso dira: «Noizbait serio pentsatu duzu zeure buruaz beste egitea?»

¹⁰ 2007. urteko Osasunari buruzko Inkestan, pertsonen menpekotasuna baloratzeko neurriak sartu dira, baita zaintzen beharra baloratzekoak ere.

La evolución de las condiciones globales de la salud de la población de la C.A. de Euskadi a partir de los datos obtenidos de la Encuesta de Condiciones de Vida¹¹, señala la prevalencia de las enfermedades crónicas sobre el resto de los problemas de salud (discapacidades y trastornos mentales graves), al mismo tiempo que denota un descenso progresivo de las mismas desde 1994, fruto de las actuaciones en materia de planificación sanitaria por tratar de reducirlas.

Euskal AEko biztanleen osasun baldintza orokorrekin Bizi-baldintzei buruzko Inkesta¹¹ jasotako datuen arabera izan duten bilakaeran ikusten da gaixotasun kronikoak gainerako osasun arazoak (ezintasunak eta buru-nahaste larriak) baino gehiago izan direla; horrez gain, 1994. urteaz gero pixkanaka horien kopurua txikitzen joan da, horiek murrizteko asmoz osasun plangintzan egin diren jardunen ondorioz.

Tabla 6
Prevalencia de limitación crónica de la actividad (%)



	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	12,0	10,1	7,7	8,2	12,1	9,4	8,1	8,5
≤15	2,0	1,8	1,4	1,5	2,4	1,5	1,8	1,4
16-24	2,7	2,4	2,5	1,8	2,2	1,9	1,8	2,6
25-44	6,2	5,6	4,5	5,0	4,0	3,5	3,3	4,0
45-64	22,0	14,5	11,9	11,8	19,7	9,7	8,9	8,9
65-74	33,3	21,7	15,3	16,5	27,7	20,1	15,3	15,3
≥75	35,7	31,0	26,4	24,7	50,4	38,8	31,8	28,4

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Osasunari buruzko Inkesta.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

6. taula
Jardueraren mugaketa kronikoaren kopurua (%)

Gráfico 20
Prevalencia de limitación crónica de la actividad

20. grafikoa
Jardueraren mugaketa kronikoaren kopurua



¹¹ Encuesta de Condiciones de Vida. Monográficos 2004.

¹¹ Bizi-baldintzei buruzko Inkesta. Monografikoak 2004.

En 2007, el 8% de los hombres y de las mujeres declararon tener problemas de salud que limitaban su capacidad funcional. La proporción de personas con alguna limitación aumentaba con la edad. Una de cada cuatro personas que ha superado los 75 años presentó algún nivel de limitación crónica de la actividad.

Esta prevalencia ha ido disminuyendo paulatinamente desde 1992 y de manera similar en ambos sexos. Concretamente esta prevalencia ha disminuido a la mitad en el grupo de edad de 45 a 64 años. A partir de 2002 se puede mencionar una estabilización en los datos de limitación crónica.

El origen de la limitación crónica de la actividad está asociada a la enfermedad común, tanto en los hombres como en las mujeres. En segundo lugar, figura el accidente laboral en los hombres (11%), mientras en las mujeres lo son las enfermedades derivadas del trabajo (2,6%).

2007. urtean, gizonen eta emakumeen % 8k esan du ahalmen funtzionala mugatzen duten osasun arazoak dituela. Zenbat eta zaharragoa izan orduan eta gehiago izan dira mugaketaren bat izan duen pertsona kopurua. 75 urtetik gorako lau pertsonatik batek izan du jardueraren mugaketa kronikoa, edozein mailatakoa.

Kopuru hori pixkanaka txikitzen joan da 1992. urteaz gero, antzera bi sexuentzat. Zehazki, kopurua erdira jaitsi da 45 eta 64 urte arteko pertsonen taldean. 2002. urteaz gero, mugaketa kronikoaren datuak egonkortu egin direla esan daiteke.

Jardueraren mugaketa kronikoaren jatorria bai gizonen bai emakumeen artean. Bigarren eragilea, laneko istripua izan da gizonen kasuan (% 11) eta lanaren ondoriozko gaixotasunak emakumeen kasuan (% 2,6).

Tabla 7
Causas de limitación crónica de la actividad (%). 2007

	Guztira Total	Gizonak Hombres	Emakumeak Mujeres
Lan istripua / Accidente laboral	6,4	11,0	2,1
Trafiko istripua / Accidente de tráfico	2,1	3,0	1,3
Etxeko istripua / Accidente doméstico	1,6	1,2	1,9
Bestelako istripua / Otro tipo de accidente	1,9	1,6	2,1
Gaixotasun arrunta / Enfermedad común	77,0	70,6	83,0
Lanetik eratorritako gaixotasuna / Enfermedad derivada del trabajo	3,4	4,3	2,6
Indarkeria fisikoa / Violencia física	0,2	–	0,4
Bestelakoak / Otras causas	7,3	8,2	6,6
Guztira / Total	100,0	100,0	100,0

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Osasunari buruzko Inkesta 2007.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud 2007.

7. taula
Jardueraren mugaketa kronikoaren arrazoiak (%). 2007

Las enfermedades musculoesqueléticas son la principal causa de la limitación crónica en hombres y mujeres (26,6% y 45,2%, respectivamente). A esta causa le siguen en orden de importancia las enfermedades del aparato circulatorio en hombres y las del sistema nervioso y órganos de los sentidos en mujeres.

Gaixotasun muskulu-eskeletikoak dira gizonen eta emakumeen mugaketa kronikoaren eragile nagusiak (% 26,6 eta % 45,2, hurrenez hurren). Garrantziaren arabera, hurrengo eragileak hauek dira: zirkulazio-aparatuaren gaixotasunak, gizonen artean, eta nerbio sistemari eta sentimen-organoei lotutako gaixotasunak, emakumeen artean.

3.3.4. Hipertensión

La hipertensión arterial fue el problema crónico más frecuentemente declarado en la Encuesta de Salud tanto en los hombres como en las mujeres.

Al 21% de la población de la C.A. de Euskadi en alguna ocasión le han comunicado en la consulta médica que tenía hipertensión.

La mitad de la población de 65 y más años se declaró hipertenso. En ambos sexos la prevalencia de hipertensión se incrementó con la edad.

3.3.4. Hipertentsioa

Arteria-hipertentsioa izan da Osasunari buruzko Inkestan esandako arazo kroniko guztien artean ugaritsuena, bai gizonen eta bai emakumeen artean ere.

EAEko biztanleen % 21ari noizbait esan diote medikuaren kontsultan hipertentsioa izan duela.

65 urteko eta gehiagoko biztanleen erdiak esan du hipertentsioa duela. Bi sexuetan, zaharragoak diren heinean hipertentsioa duen pertsona kopurua ere handiagoa izan da.

La proporción de personas que manifestaron tener hipertensión se incrementó desde 1992. Hasta los 45 años apenas ha habido variaciones, pero a partir de esta edad en ambos sexos se ha dado un incremento en la declaración de hipertensión.

1992. urteaz gero handiagoa izan da hipertentsioa duela esan duen pertsona kopurua. 45 urtera arte ia ez da aldaketarik eman kopuru horretan, baina adin horretatik aurrera bi sexuetan handitu da hipertentsioa izan duela esan duen pertsona kopurua.


Tabla 8
Proporción de personas con hipertensión declarada (%)

	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	11,3	15,6	15,5	20,8	14,5	16,9	18,1	20,9
16-24	2,3	5,0	2,1	1,7	1,9	2,4	1,3	1,3
25-44	5,9	7,6	6,0	6,1	5,2	5,3	4,2	5,0
45-64	16,9	22,5	20,9	28,1	22,3	20,8	20,5	22,4
≥65	28,8	31,3	35,2	48,1	33,5	41,1	43,6	49,3

8. taula
Hipertentsioa duela esan duen pertsona kopurua, ehunekotan (%)

Gráfico 21
Proporción de personas con hipertensión declarada

21. grafikoa
Hipertentsioa duela esan duen pertsona kopurua, ehunekotan



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunari buruzko Inkesta.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

3.4. MORBILIDAD HOSPITALARIA

El término morbilidad se emplea para referirse a los efectos de la enfermedad en una población, en un lugar y período determinados. El estudio y la cuantificación de la presencia y efectos de una enfermedad en una población puede ser medido desde la autovaloración que la población hace de su

3.4. OSPITALEETAKO ERIKORTASUNA

Erikortasuna esaten zaio gaixotasun batek toki eta aldi jakin batean biztanleengan duen eraginari. Bi modu daude gaixotasun batek biztanle jakin batzuen duen eragina ikertzeko eta kalkulatzeko: batetik, biztanleak bere osasun egoera ebaluatzea, hau da, Osasunari buruzko Inkestan biltzen den

estado de salud, conocida como morbilidad percibida, y cuyos datos se recogen en la Encuesta de Salud, o bien desde el registro de las enfermedades de la población que ha sido atendida y tratada en un centro sanitario y que en el caso de asistencia hospitalaria se concreta en la Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

La Estadística de Morbilidad Hospitalaria¹² es, después de la Estadística de Mortalidad, la más utilizada en el estudio del comportamiento de las enfermedades en la mayoría de los países, recoge información sobre el número de enfermos dados de alta en los hospitales públicos y privados, según el diagnóstico principal junto a características demográficas asociadas al paciente (edad, sexo, etc.) que nos permite conocer y comparar el nivel de salud de las personas, la prevalencia de las enfermedades, así como la utilización de los servicios hospitalarios.

Dada la existencia de una gran cantidad y variedad de enfermedades, y con el fin de armonizar datos sobre el estado de salud que permitan realizar comparaciones a nivel nacional e internacional, las enfermedades son clasificadas según la CIE (Clasificación Internacional de Enfermedades¹³). La utilización de la CIE-9-MC es ampliamente aceptada a nivel internacional para la codificación de diagnósticos y procedimientos.

Con fines estadísticos y para el análisis de tendencias, la extensa lista de patologías que contempla la CIE se agrupa con un cierto grado de agregación de forma que es común y habitual aludir a grandes grupos de diagnóstico (o patologías) para referirse a la morbilidad hospitalaria.

Cada vez son más los casos diagnosticados y tratados en los hospitales; el progresivo envejecimiento demográfico de la población es uno de los factores determinantes de este aumento del consumo de asistencia hospitalaria: más de una de cada tres personas que ingresan en el hospital tiene 65 y más años, y afectados de patologías vinculadas al sistema circulatorio, razón por la cual las enfermedades circulatorias (o cardiovasculares) son las que originan mayor frecuencia hospitalaria.

También el avance de la ciencia médica con el desarrollo de nuevos tratamientos médicos y procedimientos quirúrgicos ha permitido el desarrollo del hospital de día como alternativa a la hospitalización convencional, acortando los tiempos de estancia hospitalaria y resolviendo una mayor cantidad de casos, que antes requerían de unos días de hospitalización. Esta modalidad asistencial ha recibido un fuerte impulso en estos últi-

hautemandako erikortasunaren bidez; eta bestetik, osasun zentro batean arreta eta tratamendua jaso duen biztanleak izandako gaixotasunak erregistratzea, ospitaleko asistentziaren kasuan, Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistikan zehaztuta agertzen dena.

Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika¹², Heriotzen estatistikaren ostean, herrialde gehienetako gaixotasunen portaera aztertzeke gehien erabiltzen dena da. Estatistika horretan jasotzen dira ospitale publikoetan eta pribatuetan alta hartu duen gaixo kopuruari buruzko informazioa, diagnostiko nagusiaren arabera, eta gaixoari lotutako ezaugarri demografikoak (adina, sexua, etab.). Horrela, pertsonen osasun maila, gaixotasun kopurua eta ospitaleetako zerbitzuen erabilera zein diren jakin eta beste batzuekin aldera daitezke.

Gaixotasun ugari eta anitzak daudela kontuan hartuta, nazioan eta nazioartean alderaketak egiteko aukera ematen diguten osasun egoerari buruzko datuak harmonizatzeko asmoz, gaixotasunak GNSaren (Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena¹³) arabera sailkatzen dira. Nazioartean oso onartuta dago GNS-9-MC erabiltzea diagnostikoak eta prozedurak kodetzeko.

Estatistika xedeetarako eta joerak aztertu ahal izateko, GNSn jasotzen den patologien zerrenda luzea nolabaiteko agregazio mailarekin multzokatzen da; horrenbestez, diagnostikoen (edo diagnostikoen) multzo handiak aipatzen dira ospitaleetako erikortasunari buruz hitz egitean.

Gero eta gehiago dira ospitaleetan diagnostikatutako eta tratamendua emandako kasuak; biztanleen etengabeko zahartze demografikoa ospitaleetako asistentziaren kontsumoak gora egin izanaren faktore erabakigarrietako bat da: ospitaleratzen diren hiru pertsonatik bat baino gehiagok 65 urte eta gehiago izan ditu, eta zirkulazio sistemari lotutako patologiaren bat izan du; ondorioz, zirkulazio gaixotasunek (edo kardiobaskularrek) ospitalera gehiagotan joatea eragiten dute.

Halaber, medikuntzaren aurrerapenaren (tratamendu mediko berrien agerpena eta prozedura kirurgikoak) ondorioz, eguneko ospitalea ohiko ospitaleratzea ez izateko beste aukera bat da, ospitaleetako egonaldiak laburtu dira eta lehen egun batzuetan ospitaleratuta egotea eskatzen zuten kasu gehiago ebatzi dira. Asistentzia mota horrek azken urteetan indar handia hartu du; eta batez ere arrazoi horregatik, nerbio sis-

¹² La fuente de información de la estadística de morbilidad hospitalaria procede del Conjunto Mínimo Básico de Datos del Registro de Altas Hospitalarias (CMBD) de los centros hospitalarios de la C.A. de Euskadi, donde queda registrado cada episodio de hospitalización desde que el paciente es ingresado en el hospital hasta el momento en que recibe el alta médica. A partir del diagnóstico principal que figura en el informe de alta hospitalaria que recibe el paciente y que ha motivado su ingreso en un centro hospitalario, las enfermedades son clasificadas según la CIE-9-MC.

¹³ La CIE que se emplea actualmente es la CIE-9-MC 9ª revisión Modificación Clínica. La CIE es el inventario principal donde se recogen todos los posibles diagnósticos médicos, así como los procedimientos diagnósticos y terapéuticos. Constituye el sistema más importante de codificación para la monitorización de los problemas de salud y en comparaciones internacionales sobre problemas de salud.

¹² Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistikak emandako informazio-iturria Euskal AEko ospitale zentroetako Ospitaleko Alten Erregistroko Oinarritzko eta Gutxieneko Datu Multzoa (OGDM) da, bertan erregistratzen baitira ospitaleratze guztiak, gaixoa ospitaleratzen denetik medikuaren alta hartzen duenera arte. Gaixoak jasotzen duen eta ospitaleratzeko xede izan den ospitaleko altari buruzko txostenean jasotako diagnostiko nagusia aintzat hartuta, gaixotasunak GNS-9-MC delakoaren arabera sailkatzen dira.

¹³ Gaur egun erabilitako GNS dagoeneko 9. berrikuspenera duen GNS-9-MC da, aldaketa klinikoari buruzkoa. GNS medikuaren diagnostiko guztiak, diagnostikoen prozedurak eta prozedura terapeutikoak jasotzen dituen inbentario nagusia da. Kode-sistema garrantzitsuenak da, osasun arazoak nazioartean alderatzeko aukera ematen baitu.

mos años y es uno de los motivos principales por el que el grupo de patologías relacionadas con el sistema nervioso y órganos de los sentidos (con la catarata como máxima exponente del grupo por su frecuencia) se sitúa entre los tres grupos de enfermedades que causan mayor morbilidad hospitalaria.

3.4.1. Evolución

El estado general de salud de la población, medido a través de las enfermedades diagnosticadas en los centros hospitalarios (morbilidad hospitalaria), sitúa al grupo de las enfermedades del sistema circulatorio como la principal causa de ingreso hospitalario de estos últimos ocho años (2000-2007). Le siguen las enfermedades del aparato digestivo, y sistema nervioso y órganos de los sentidos, en segundo y tercer lugar.


temari eta sentimen-organoei lotutako patologien multzoa (begi-lauroa izanik multzoan sarrien ematen den patologia) ospitaleetan erikortasun gehien eragiten duen gaixotasunen hiru multzoetako bat da.

3.4.1. Bilakaera

Biztanleen osasun egoera orokorra ospitale zentroetan diagnostikatzen diren gaixotasunen (ospitaleetako erikortasuna) bitartez neurtzen badira, zirkulazio sistemako gaixotasunen multzoa izan da azken zortzi urteetako (2000-2007) ospitaleratzeen arrazoi nagusia. Horren ostean daude, hala ere, digestio-aparatuko gaixotasunak (bigarrenak) eta nerbio sistema eta sentimen-organoetako gaixotasunak (hirugarrenak).

Gráfico 22
Altas por grandes grupos de diagnóstico (%)

22. grafikoa
Alta kopurua, diagnostiko-multzo handiak bereizita (%)




Entre los grupos de enfermedades más frecuentes (que causan más de 20.000 altas hospitalarias al año) las osteomusculares, vinculadas al progresivo envejecimiento de la población y, por otro lado, los tumores y partos han sido los que proporcionalmente más han crecido en estos últimos años en el hospital.

Gehien agertu diren gaixotasun multzoen artean (urtean 20.000 altatik gora sortu dituztenak ospitaleetan) gaixotasun osteomuskularrek (biztanleen etengabeko zahartzeari lotutakoak), tumoreek eta erditzeek izan dute hazkunderik handiena azken urte hauetan ospitaleetan.

Gráfico 23
Evolución de las altas por grandes grupos de diagnóstico más frecuentes

23. grafikoa
Alten bilakaera, sarrien agertzen diren diagnostiko-multzo handien arabera



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

También ha habido otras causas por las que han destacado nuevamente el grupo de las neoplasias (tumores), que aparece reiteradamente como principal causa de fallecimiento hospitalario, y el grupo de embarazo, parto y puerperio, que, aunque en sí mismo no se trata de una patología, constituye la principal causa de ingreso hospitalario en las mujeres, y las enfermedades mentales y las originadas durante el período perinatal, con la estancia media hospitalaria más elevada.

Baina beste arrazoi batzuk ere egon dira: hauen artean berriz izan da neoplasien multzoa (tumoreak) gehien eman dena, behin eta berriro agertzen da ospitaleetako heriotzen eragile nagusi moduan; haurdunaldien, erditzeen eta puerperioaren multzoa ere badago, berez patologia bat izan ez arren emakumeen ospitaleratzeen arrazoi nagusia dena; gaixotasun mentalak; eta jaiotza-inguruko aldian sortutako gaixotasunak, ospitaleetan batez besteko egonaldi luzeenekin.

3.4.2. Morbilidad hospitalaria por género, edad y grandes grupos de diagnóstico

Las causas de morbilidad hospitalaria no se dan con la misma intensidad según el género y la edad.

La edad media de hospitalización en el año 2007 fue de 57 años en los hombres y 55 años en las mujeres. Los hombres registraron un número mayor de altas hospitalarias que las mujeres por cada 1.000 habitantes para todos los grupos de edad, salvo en el tramo de 20 a 44 años, debido al efecto de los ingresos por embarazo, parto y puerperio.


3.4.2. Ospitaleetako erikortasuna, generoaren, adinaren eta diagnostiko-multzo handien arabera

Ospitaleetako erikortasunen arrazoiak ez dira kopuru berean ematen generoa eta adina bereiziz gero.

2007. urtean ospitaleratuta egon direnen batez besteko adina 57 urte izan da gizonen kasuan, eta 55 urte emakumeetan. Gizonek emakumeek baino alta gehiago hartu dituzte 1.000 biztanle bakoitzeko. Adin-tarte guztietan gertatu da hori, 20-40 urte bitartean izan ezik; izan ere, haurdunaldiak, erditzeak eta puerperioak eragina dute horretan.

Gráfico 24
Tasa de altas hospitalarias por 1.000 habitantes, según
sexo y edad. 2007

24. grafikoa
Ospitaleetako alteen tasa, 1.000 biztanleko, sexua eta
adina bereizita. 2007



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

Los pacientes de 65 y más años utilizan la asistencia hospitalaria con una frecuentación superior a la del resto de la población. Los cambios degenerativos propios del envejecimiento fueron los responsables de las altas tasas hospitalarias a partir de los 65 y más años, tasas que se elevan conforme avanza la edad, llegando en las personas mayores de 85 años a alcanzar la cifra de 392 altas por cada 1.000 habitantes. A su vez, en el lado opuesto, el grupo de menores de 1 año, también presenta altas tasas debido, sobre todo, a trastornos causados por el bajo peso en el nacimiento y enfermedades respiratorias: «bronquitis y bronquiolitis agudas».

Las enfermedades circulatorias son la principal causa de ingreso en los hombres y el embarazo, parto y puerperio en las mujeres. El grupo de enfermedades del sistema circulatorio se sitúa como la principal causa de ingreso hospitalario en los hombres y la tercera en las mujeres, después del embarazo, parto y puerperio y las enfermedades del sistema nervioso y órganos de los sentidos.

Del resto de grupos de patologías que más se repiten, también se aprecian diferencias según el sexo; las enfermedades respiratorias (especialmente la «bronquitis crónica») y las digestivas («hernia inguinal») aparecen con más frecuencia en los hombres, mientras que los diagnósticos genitourinarios destacan en las mujeres.

Las causas que originaron que una misma persona ingresara más de una vez en el hospital fueron el «tratamiento de quimioterapia de mantenimiento» y las patologías de carácter crónico como la «bronquitis crónica» (más frecuente en los hombres) e «insuficiencia cardíaca» (más habitual en las mujeres).

65 urte edo gehiagoko gaixoei gainerako biztanleek baino gehiago erabiltzen dute ospitaleko asistentzia. Zahartzeak dakarren endekatzea izan da 65 urte eta gehiagoko pertsonen ospitaleratze tasa altuen arrazoia. Tasa horiek gorantz doaz adinarekin batera, eta 85 urteko pertsonen artean 1.000 biztanle bakoitzeko 392 alta izan dira. Beste aldean, urte 1etik beherako taldean ere alta ugari izan da, batez ere jaiotzean izandako pisu txikiagatik eta arnas gaixotasunengatik sortutako osasun arazoak direla medio: «bronkitisa eta bronkiolitis akutua».


Gizonen kasuan zirkulazio gaixotasunak dira ospitaleratzeak arrazoi nagusia; emakumeen kasuan, aldiz, haurdunaldia, erditzea eta puerperioa. Zirkulazio sistemako gaixotasunen multzoa gizonak ospitaleratzeak arrazoi nagusia da; emakumeetan, berriz, hirugarren arrazoi nagusia da, haurdunaldia, erditzearen eta puerperioaren eta nerbio sistemaren eta sentimen-organoetako gaixotasunen ondorioak.

Horiez aparte, gehien ematen diren patologien artean ere aldaketak nabari dira sexuaren arabera: arnas gaixotasunak (bereiziki «bronkitis kronikoa») eta digestiboak (iztai-etena) ugariagoak dira gizonen artean; emakumeen kasuan, aldiz, genitourinarioak sarriagoak dira.

Ondokoak dira pertsona bera behin baino gehiagotan ospitaleratu izanaren arrazoiak: mantentze-kimioterapia tratamendua eta patologia kronikoa; besteak beste, bronkitis kronikoa (gizonen artean sarriago) eta bihotz-gutxiegitasuna (emakumeen artean sarriago).

Gráfico 25
*Pacientes dados de altas en los hospitales
de agudos por grandes grupos de diagnóstico
más frecuentes, 2007*

25. grafikoa
*Gaixo akutuen ospitaleetan alta hartutako gaixoen
kopurua, diagnostiko multzo handi ohikoenen eta
sexuaren arabera. 2007*



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

Las causas de morbilidad atendida en los hospitales varían con la edad. Un recorrido por los distintos grupos de edad señala a las enfermedades respiratorias como la principal causa de ingreso de las personas de *0-14 años* (principalmente «amigdalitis» y «asma»). En segundo lugar destacan las enfermedades de origen perinatal, siendo los casos más frecuentes los «trastornos relacionados con gestación acortada y bajo peso».

La principal causa de ingreso cambia en las mujeres de *15 a 44 años* con la asistencia por parto, embarazo y puerperio, que representan el 50% de las altas de las mujeres en este tramo de edad. En los varones destacan los traumatismos derivados de fractura de radio, cúbito y dislocación de rodilla.

Continuando con las personas de *45 a 64 años* las enfermedades más diagnosticadas en los hombres son las digestivas («hernia inguinal») y circulatorias («arteroesclerosis coronaria») y en las mujeres las osteomusculares («deformación del dedo gordo del pie» y «trastorno de rodilla») y tumores («neoplasia de mama»).

Un 62% de las personas que ingresan por causa de problemas circulatorios tienen 65 y más años. Las enfermedades circulatorias (o cardiovasculares) se sitúan como las más frecuentes en los hombres de *65 y más años*, destacando en particular la «insuficiencia cardíaca», y en segundo lugar en las mujeres, después del grupo del sistema nervioso y órganos de los sentidos.

Ospitaleetan arreta jaso duten erikortasunen arrazoiak aldatu egiten dira adinarekin. Adin-talde ezberdinei erreparatzen badiegu, *0-14 urteen* arteko pertsonak ospitaleratzeko arrazoi nagusia arnas gaixotasunak direla ikus dezakegu (amigdalitis eta asma nagusiki). Horien ondotik, jaiotza-inguruko gaixotasunak nabarmentzen dira; ohikoenak «laburtutako haurdunaldiarekin eta jaiotzean pisu txikia izatearekin zerikusia duten trastornoak» dira.

15-44 urte arteko emakumeen artean, ospitaleratzeko arrazoi nagusia haurduntza, erditzea eta puerperioa izan da. Adin-tarte horretako emakumeek hartzen duten alteen % 50 osatzen dute. Gizonen artean, erradioa eta kubitua haustearen eta belauna dislokatzearen ondoriozko traumatismoak nabarmentzen dira.

45-64 urte arteko pertsonekin jarraituz, gizonen artean gehien diagnostikatu diren gaixotasunak digestiboak (iztai-etena) eta zirkulaziokoak (koronarioetako arterioesclerosis) dira; emakumeen artean, aldiz, osteomuskularrak (oineko hatz lodia deformatzea eta belauneko nahastea) eta tumoreak (bularreko neoplasia) dira ugariak.

Zirkulazio arazoengatik ospitaleratu diren gaixoen % 62k 65 urte edo gehiago izan ditu. *65 urte edo gehiago* dituzten gizonen artean, zirkulazio gaixotasunak (edo kardiobaskularrak) dira ugariak, bereziki, bihotz-gutxiegitasuna. Emakumeen artean, bigarren tokian kokatzen dira horiek, nerbio sistema eta sentimen-organoetako taldearen ondotik.

Dentro del grupo de sistema nervioso y órganos de los sentidos, la «catarata» tiene especial incidencia entre las personas de 65 y más años. Tratada principalmente en la unidad de hospital de día, es la patología más diagnosticada en los hospitales de agudos (de los 18.216 casos en 2007 el 87% de los pacientes tenían 65 y más años).

Nerbio sistema eta sentimen-organoetako taldearen barruan, begi-lausoia da 65 urte edo gehiago dituzten pertsonetan maiztasun handienarekin agertzen dena. Batez ere eguneko ospitalean tratatzen da hori, eta gaixo akutuen ospitaleetan gehien diagnostikatu den patologia da (2007ko 18.216 kasuetatik, gaixoen % 87k 65 urte edo gehiago zituen).

Gráfico 26
Pacientes dados de alta en los hospitales de agudos por grandes grupos de diagnóstico, por edad

26. grafikoa
Gaixo akutuen ospitaleetan alta hartutako gaixoen kopurua, diagnostiko multzo handiaren eta adinaren arabera





Gráfico 27
Evolución del número de casos con diagnóstico
de catarata

27. grafikoa
Begi-lausoetako kasuen kopuruak izandako
bilakaera



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

3.4.3. Hospital de día

La actividad de hospital de día está dirigida a pacientes que deben someterse a métodos de diagnóstico y tratamiento que requieren de unas horas de cuidados médicos y de enfermería. En estos casos el paciente recibe el alta a domicilio el mismo día que ingresa y reduce el tiempo de permanencia del paciente en el hospital, evitando la hospitalización prolongada.

Cada vez son más los casos tratados en hospital de día. Esta modalidad de asistencia que se desarrolla como alternativa a la hospitalización convencional, cada vez tiene más peso e importancia sobre la actividad global hospitalaria. Cada año, más casos que antes requerían algunos días de hospitalización se logran realizar en hospital de día.

Esta clase de actividad ha tenido una evolución ascendente en los últimos ocho años (2000-2007) en los hospitales de agudos: si el 16,3% del total de altas en el año 2000 correspondía a hospital de día, esta proporción se eleva al 22,2% en 2007.

La mayoría de los casos tratados en hospital de día corresponden al grupo de enfermedades del sistema nervioso y órganos de los sentidos, representando éste el 38% de las altas en 2007, y dentro del cual la intervención de catarata tiene especial prevalencia.

Con un peso inferior se encuentra el grupo de las enfermedades osteomusculares (9,4%), dentro de las cuales las más habituales son: las lesiones de menisco, mano («dedo en gatillo») y trastornos de bursa («bursitis»); le siguen el grupo de otras causas (8%), donde destaca la quimioterapia de mantenimiento.

3.4.3. Eguneko ospitalea

Eguneko ospitalea arreta medikoa zein erizaintzako zenbait ordu behar dituzten diagnostiko eta tratamendu metodoak egin behar dizkieten gaixoei zuzenduta dago. Kasu hauetan, egun berean ospitaleratu eta alta hartzen du gaixoak. Horrela, ospitalean igaro beharreko denbora murriztu egiten da, luzaroko ospitaleratzea ekidinez.

Gero eta gehiago dira eguneko ospitalean artatutako kasuak. Ohiko ospitaleratzeari irtenbide bat bilatu nahian eratu zen laguntza modu hau gero eta garrantzitsuagoa da ospitaleko jardura orokorreko eremuan. Gero eta gehiago dira urtero eguneko ospitaleak hartzen dituen kasuak, lehen zenbait egun ospitalerata egotea eskatzen zutenak, hain zuzen.


Azken zortzi urte hauetan (2000-2007), jardura mota honek gorako bilakaera izan du gaixo akutuen ospitaleetan: 2000. urtean, alta guztien % 16,3 eguneko ospitaleetan eman zen; 2007an, aldiz, % 22,2ra heldu da.

Eguneko ospitaleetan artatutako kasu gehienak nerbio sistemako eta sentimen-organoetako gaixotasunen taldean eman ziren, 2007ko alta guztien % 38, hain zuzen ere. Talde horren barruan, begi-lausoetako ebakuntza kasuak gailendu dira.

Bestalde, gaixotasun osteomuscularren kopurua txikiagoa da (% 9,4); talde horren barruan, ondokoak dira ohikoak: meniskoko eta eskuko (flexorearen tendinitisa) lesioak eta poltsako nahasteak (bursitis); horien ondoren, beste arrazoi batzuen taldea (% 8) dago, eta mantentze-kimioterapia nabarmentzen da bertan.

Gráfico 28
Evolución de las altas hospitalarias (total altas
y hospital de día)

28. grafikoa
Ospitaleko alden bilakaera (altak guztira
eta eguneko ospitalea)



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

Tabla 9
Altas hospitalarias
(total y hospital de día)

9. taula
Ospitaleetako alta kopurua
(guztira eta eguneko ospitalean)

Diagnostiko talde handiak Grandes grupos de diagnóstico	Altak guztira Total altas (%)	Eguneko ospitaleko altak Altas hospital día (%)	Eguneko ospitaleko altak guztien gainean Altas hospital día s/ total de altas (%)
I. Infekziosoak / Infecciosas	1,2	0,3	4,9
II. Tumoreak / Tumores	8,7	6,4	16,4
III. Endokrinoak / Endocrinas	1,4	1,1	16,4
IV. Odola / Sangre	1,1	1,2	23,2
V. Mentalak / Mentales	1,7	0,2	3,1
VI. Nerbioak / Nerviosas	10,4	38,0	81,4
VII. Zirkulatorioak / Circulatorias	12,2	6,4	11,7
VIII. Arnasbideetakoak / Respiratorias	9,4	4,4	10,4
IX. Digestiboak / Digestivas	11,4	5,9	11,5
X. Genitourinarioak / Genitourinarias	5,8	6,4	24,4
XI. Erditzea / Parto	8,7	3,0	7,8
XII. Azala / Piel	1,8	3,6	45,0
XIII. Osteomuskularrak / Osteomusculares	8,9	9,4	23,7
XIV. Kongenitoak / Congénitas	0,8	1,2	32,5
XV. Jaiotza ingurukoak / Perinatales	0,7	0,1	2,0
XVI. Gaizki definituak / Mal definidos	4,7	1,2	5,8
XVII. Traumatismoak / Traumatismos	7,3	3,2	9,6
Bestelakoak / Otras causas	4,0	8,0	45,3
Guztira / Total	100	100	22,2

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

3.4.4. Neoplasias

Los tumores que causaron mayor número de hospitalizaciones en el año 2007 fueron por el siguiente orden: los malignos de vejiga, mama de mujer y colon.

En los hombres, junto al de vejiga y colon, también se situaron entre los más frecuentes el de próstata y tráquea-bronquios-pulmón. Los diagnósticos de tumor de vejiga aumentan conforme avanza la edad del paciente mientras que en los tumores de tráquea, bronquios y pulmón el mayor número de casos se concentra en el grupo de 45-64 años y el de próstata en el grupo de 65-74 años.

3.4.4. Neoplasiak

Ondokoak dira, maiztasunaren arabera, 2007an ospitaleratze gehienak eragin zituzten tumoreak: puxikako, emakumearen titiko eta koloneko neoplasia gaiztoak.


Gizonen kasuan, puxikakoarekin eta kolonekoarekin batera, prostatako eta trakiako-bronkioetako-biriketako neoplasiak ere ugariak izan dira. Puxikako tumoreen kopuruak gora egin du gaixoaren adinak aurrera egin ahala. Trakeako, bronkioetako eta biriketako tumoreen kasuan, aldiz, diagnostiko gehienak 45-64 urte arteko taldean aurkitzen dira, eta 65-74 urte arteko taldean prostatakoaren kasuan.

Gráfico 29

Altas de las neoplasias más frecuentes en los hombres

29. grafikoa

Neoplasia ohikoenen altak gizonen artean



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

Los tumores de mama y fibroma uterino fueron los más frecuentes en las mujeres, destacando por su especial incidencia el fibroma uterino en las mujeres de 15-44 años y el tumor maligno de mama en las de 45-64 años.

Los ingresos por tumor de colon, que se encuentran entre las localizaciones tumorales más frecuentes en hombres y mujeres, han aumentado considerablemente durante estos últimos ocho años, en especial en los hombres, donde este incremento ha sido del 71,3% (2000-2007).

También ha habido un notable aumento de los casos con cáncer de próstata. Los casos con este diagnóstico han experimentado un incremento del 96,3% durante el período 2000-2007, pasando a ser el segundo tipo de cáncer más frecuente en los varones (después del de vejiga y por delante de tráquea-bronquios-pulmón y colon).


Emakumeen artean, tumore ugariak titikoak eta umetokiko fibromakoak izan dira. Azken horiek 15-44 urte arteko taldean eman dira bereziki, eta titien tumore gaiztoak, aldiz, 45-64 urte arteko taldean.

Koloneko tumoreek eragindako ospitaleratze kopuruak, bai gizonetan bai emakumeetan tumore kasu ugariena duenak, nabarmen egin du gora azken zortzi urte hauetan; batez ere gizonen artean, % 71,3ko igoerarekin (2000-2007).

Horrez gain, prostatako minbiziak ere areagotu dira asko. Zehazki, % 96,3 igo da 2000-2007 aldian diagnostiko horien kopurua. Ondorioz, gizonen artean eman den bigarren minbizi mota sarriena izan da (puxikakoaren ondotik eta trakeako-bronkioetako-biriketako eta kolonekoaren aurretik).

Gráfico 30
Altas de las neoplasias más frecuentes en las mujeres


30. grafikoa
Neoplasia ohikoenen altak emakumeen artean



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

Gráfico 31
Evolución de los tumores de colon y próstata

31. grafikoa
Koloneko eta prostatako tumoreen bilakaera




Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

Entre los distintos tipos de cáncer, el tumor maligno del aparato respiratorio y digestivo fue el que causó mayor número de fallecimientos en los hospitales de agudos en 2007. Si bien, en los hombres prevalecieron los fallecimientos por causa del tumor de tráquea, bronquios y pulmón, y de forma más acusada en aquellos con edades de 45-64 años.

Minbizi ezberdinen artean, arnas eta digestio aparatuko tumore gaiztoak eragin dute 2007an gaixo akutuen ospitaleetako heriotza gehienak. Dena den, gizonen artean trakeako, bronkioetako eta biriketako tumoreek eragin dituzte heriotza gehienak, batez ere 45-64 urte artekoetan.

Gráfico 32
Tumores que causan mayor número de fallecimientos en los hospitales

32. grafikoa
Ospitaleetan heriotza gehien eragiten dituzten tumoreak



Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleetako Erikortasunaren Estatistika.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo y Eustat. Estadística de Morbilidad Hospitalaria.

4

OSASUN SISTEMA

SISTEMA DE SALUD

4.1. PRÁCTICAS PREVENTIVAS

4.1.1. Vacunación antigripal

La gripe es una enfermedad que causa incapacidad durante varios días, incrementa la morbilidad y la demanda asistencial de la población. Con el fin de disminuir el impacto de la gripe, diversos estudios han señalado la eficacia de las campañas de vacunación antigripal dirigidos a los grupos de riesgo.

La vacunación antigripal se debería administrar anualmente a todas las personas mayores de 65 años y a aquellas que aunque no alcancen esta edad tengan problemas crónicos, para evitar un riesgo que provoque complicaciones graves.

4.1. AURREA HARTZEKO NEURRIAK

4.1.1. Gripearen aurkako txertoa

Gripea zenbait egunetan ezgaitasuna dakarren gaixotasuna da, erikortasuna eta biztanleriaren asistentzia eskaria gehitzen ditu. Gripearen eragina gutxitzeko, zenbait ikerketek arrisku-taldeetarako txertatze-kanpainen eraginkortasuna jakinarazi dute.

Gripearen aurkako txertoa urtero jarri beharko lukete 65 urte-tik gorako biztanleek eta adin hori bete gabe eduki arren arazo kronikoak dituzten pertsonak; horrela, ez litzateke egongo arazo larriak agertzeko arriskurik.

Tabla 1

Personas que se vacunan de gripe por sexo y grupos de edad (%)

	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	19,0	20,0	20,4	23,4	19,4	19,5	22,4	25,7
<50	6,8	8,0	6,6	8,2	4,6	6,7	6,0	7,5
50-64	27,5	25,9	21,0	20,5	26,0	17,0	17,9	20,2
65-74	62,9	57,7	64,2	71,4	59,5	53,5	62,5	67,9
≥75	85,2	79,3	82,4	86,8	64,4	71,8	76,6	77,4

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Osasunari buruzko Inkesta.

Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

1. taula


Gripearen txertoa hartzen duten pertsonak, sexua eta adin-taldea bereizita (%)

Gráfico 1

Personas que se vacunan de gripe por sexo y grupos de edad (%)

1. grafikoa

Gripearen txertoa hartzen duten pertsonak, sexua eta adin-taldea bereizita (%)



El 71% de los hombres y el 68% de las mujeres de 65 a 74 años se vacunan contra la gripe, cuando se superan los 75 años estas proporciones de vacunación se incrementan situándose en un 87% y 77%, respectivamente.

A lo largo de los años ha ido aumentando la adhesión a esta práctica preventiva incluso entre la población que no supera los 50 años, especialmente en los casos en los que se da algún motivo, como es la existencia de un problema crónico o el trabajo con gran número de personas, donde hay mayor exposición al contagio.

4.1.2. Tensión arterial

La hipertensión arterial es el problema crónico más prevalente según la Encuesta de Salud 2007.

Esta práctica preventiva está relacionada con la alta prevalencia de población hipertensa que se incrementa en función de la edad. La medida rutinaria de la tensión arterial permite detectar, controlar y prevenir múltiples problemas de salud. Casi tres de cada cuatro habitantes se toman la tensión arte-

65 eta 74 urte arteko gizonen % 71k eta emakumeen % 68k hartzen du gripearen aurkako txertoa; eta 75 urtetik gorakoekin artean, txertoa jartzen duen pertsona kopurua gehitu egiten da: % 87 eta % 77, hurrenez hurren.

Urteak igaro ahala, gripearri aurrera hartzeko neurri hau betetzen duen gero eta pertsona gehiago dago, baita gehienez 50 urte dituztenen artean ere, eta bereziki arrazoiren bat dagoenean: arazo kronikoa edukitzea edo pertsona askorekin lan egiten delako kutsatzeko arrisku handia duen lana egitea.

4.1.2. Arteria-presioa

2007ko Osasun Inkestaren arabera arterietako hipertentsioa da arazo kroniko nagusia.

Tentsio altua duen biztanle kopuru handiari lotuta dago aurrea hartzeko jardun hau; gainera, biztanleak zaharragoak diren heinean kopuru hori handiagozten doa. Arteria-presioa ohikotasunez neurtzen bada osasun arazo ugari antzeman, kontrola eta prebeni daitezke. Lau biztanletik ia hiruk gutxienez ur-

Tabla 2
Personas que se toman la tensión arterial al menos una vez al año por sexo y grupos de edad (%)



	Gizonak / Hombres				Emakumeak / Mujeres			
	1992	1997	2002	2007	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	64,6	65,3	64,9	73,4	67,3	66,5	67,7	73,4
16-24	36,1	36,3	33,5	36,8	43,9	39,7	38,6	34,8
25-44	62,6	59,5	56,7	65,4	61,4	59,6	57,5	64,5
45-64	78,1	80,2	77,9	85,0	75,7	74,6	76,4	81,6
≥65	84,4	89,1	89,5	94,6	89,0	89,5	90,7	93,2

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunari buruzko Inkesta.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

2. taula
Urtean gutxienez behin arteria-presioa neurtzen duten pertsonak, sexua eta adin-taldea aintzat hartuta (%)

Gráfico 2
Personas que se toman la tensión arterial al menos una vez al año por sexo y grupos de edad (%)

2. grafikoa
Urtean gutxienez behin arteria-presioa neurtzen duten pertsonak, sexua eta adin-taldea aintzat hartuta (%)



rial al menos una vez al año. No existen diferencias por sexo, pero a medida que aumenta la edad esta práctica se generaliza, hasta alcanzar al 94% de la población que tiene 65 y más años.

En los últimos años se ha incrementado la proporción de personas que han realizado la medición anual de la tensión arterial, pasando del 65% en 1992 al 73% de la actualidad.

4.1.3. Mamografías

El cáncer de mama es el tumor maligno más frecuente entre las mujeres vascas. Su detección precoz es un factor de gran importancia que permite tratamientos más eficaces y menos agresivos, consiguiendo así mejores tasas de supervivencia y mejor calidad de vida.

La C.A. de Euskadi cuenta desde 1997 con un Programa de detección precoz del cáncer de mama ofertado por Osakidetza a las mujeres de 50 a 64 años de edad, a quienes se propone la realización de una mamografía cada dos años. En 2007 se amplió la edad del grupo diana hasta los 70 años. Por otro lado, la Encuesta de Salud incluye desde 1992 una sección sobre el conocimiento y frecuencia de utilización de esta práctica preventiva.

Según la Encuesta de Salud de 2007 el 41,5% de las mujeres de 16 y más años se habían hecho una mamografía en los últimos tres años. Por grupos de edad, el 91,1% de las de 50 a 64 años (grupo diana del Programa de detección precoz del cáncer de mama) no habían transcurrido más de dos años desde la realización de la última mamografía y esa proporción era del 53% para las mujeres de 40 a 49 años.

El incremento de la proporción de mujeres que se han realizado una mamografía en los tres años previos es considerable a partir de los 40 años, y puede decirse que se ha generalizado en el grupo de edad de 50 a 64 años. A partir de los 65 años el incremento también ha sido muy grande aunque no ha llegado a las proporciones del grupo de edad hasta ahora objeto de programa de cribado del cáncer de mama. Por el contrario, esa proporción ha descendido en las menores de 40 años, lo que sugiere una mejora en la indicación de la mamografía.

En 1992 sólo una de cada tres mujeres de 50 a 64 años se había realizado una mamografía en los últimos tres años, mientras que en 2007 se ha generalizado esta prueba alcanzando al 91% de las mujeres de estas edades.

tean behin neurtzen dute arteria-presioa. Ez da sexuaren arabera bereizketarik ematen, baina zenbat eta zaharragoak izan sarriago neurtzen dute presio hori: 65 urteko eta gehiagoko biztanleen % 94ak neurtzen du arteria-presioa.

Azken urteotan gehitu egin da arteria-presioaren urteko neurketa egin duen pertsona kopurua: 1992. urtean % 65k neurtu zuen eta gaur egun % 73k.

4.1.3. Mamografiak

Euskal emakumeen artean titietako minbizia da tumore gaizto ugariena. Haren detekzio goiztiarra guztiz garrantzitsua da; izan ere tratamendu eraginkorrago eta gutxiago erasokorrrak ahalbidetzen ditu, eta horrela biziraupen-tasak etab izialitate hobetzen dira.

Euskal AEn 1997. urtean sortu zen titietako minbizia goiz detektatzeko programa. Osakidetzak eskaintzen die programa hori 50 eta 64 urte arteko emakumeei; bi urtean behin mamografia egitea proposatzen die. 2007. urtean adin-tarte 70 urtera arte luzatu zen. Bestalde, Osasunari buruzko Inkestak 1992. urteaz gero du aurrea hartzeko neurri hori ezagutzearen eta erabiltzeko maiztasunaren gaineko atal bat.

2007ko Osasunari buruzko Inkestan jaso zen 16 urteko eta gehiagoko emakumeen % 41,5k azken hiru urteetan mamografia bat egin zuela. Adin-taldeak bereizita, 50 eta 64 urte arteko emakumeen % 91,1k (Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programaren xede den taldea) bi urte baino gehiago igaro baino lehen egin zuen beste mamografia bat; 40 eta 49 urte arteko emakumeen % 53 izan zen egoera berean.

Aurreko hiru urteetan mamografia bat egin duen emakume kopurua nahiko handia izan da 40 urtetik aurrera, eta 50 eta 64 urte arteko emakumeen artean proba hori orokortu egin dela esan daiteke. 65 urtetik aurrera ere nabarmen gehitu da kopuru hori, baina oraindik ez da heldu titietako minbizia detektatzeko programaren xede diren emakumeen adin-taldeko kopurura. Alabaina, 40 urtetik beherako emakumeen artean kopurua txikitu egin da, agian mamografiaren gaineko ohar hobeak ematen direlako.

1992. urtean soilik 50 eta 64 urte arteko hiru emakumetik batek egin zuen mamografia bat azken hiru urteetan, baina 2007. urtean proba orokortu egin da eta adin-tarte horretako emakumeen % 91k egin du.

Tabla 3

Mujeres que se han hecho una mamografía en los últimos tres años (%)

	1992	1997	2002	2007
Guztira / Total	25,7	36,1	40,4	41,5
16-39	19,4	13,7	10,9	10,5
40-49	48,0	62,8	57,2	53,5
50-64	36,3	69,0	89,2	91,1
65-74	12,5	38,5	49,7	53,1
≥75	7,1	14,1	15,1	9,7


Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritzak. Osasunari buruzko Inkesta.
Fuente: Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco. Encuesta de Salud.

3. taula

Azken hiru urteetan mamografia egin duen emakume kopurua (%)

Gráfico 3
Mujeres que se han hecho una mamografía
en los últimos tres años

3. grafikoa
Azken hiru urteetan mamografia egin
duen emakume kopurua



¹² Fuente: Eurostat y Eustat (Estadística de defunciones y Actualización del censo poblacional).

¹² Iturria: Eurostat eta Eustat (Heriotzen estatistika eta Errolda arteko biztanleen eguneratzea).

Gráfico 18
Tasas de mortalidad estandarizadas, según principales causas. UE-27. 2006

18. grafikoa
Heriotza tasa estandarizatuak, arrazoi nagusien arabera. EB-27. 2006





Gráfico 19
Tasas de mortalidad estandarizadas, según causas. C.A. de Euskadi. 2007

19. grafikoa
Heriotza tasa estandarizatuak, arrazoi en arabera. Euskal AE. 2007



Oharra: «Kanpoko arrazoiak» epigrafea kalkulatzeko hurbilketa bat egin da, «Istripuak» eta «Norberaren buruaz beste egitea» izeneko arrazoiak gehituta.
Nota: El cálculo del epígrafe de «Causas externas» se realiza como aproximación, sumando las causas de «Accidentes» y «Suicidios».

5.3.5.1. Tasa de mortalidad estandarizada. Sistema circulatorio¹³

El sistema circulatorio representa la primera causa de mortalidad en el conjunto de los países de la UE-27, con 246 fallecimientos por cada 100.000 habitantes, 200 en el caso de las mujeres y 302 en el caso de los hombres. Francia (129) y la C.A. de Euskadi (137) destacan por los menores valores en la tasa de mortandad debida al sistema circulatorio. En 10 países, entre ellos España, Países Bajos o Noruega, estas patologías causan anualmente una tasa entre 150 y 200 fallecimientos.

En un segundo grupo de países (11), entre los que se encuentran Finlandia y Alemania, esta tasa se sitúa entre los 200 y 300 fallecimientos. Finalmente, los países de las más recientes ampliaciones de la UE registran valores muy superiores, con tasas de mortalidad debida al sistema circulatorio que superan los 350 fallecimientos.

Este tipo de enfermedad¹⁴ afecta en mayor proporción a los hombres que a las mujeres. De hecho se detectan dos grandes posiciones extremas. De una parte, en la C.A. de Euskadi o Finlandia, entre otros, la tasa de mortalidad estandarizada masculina asociada a las patologías del sistema circulatorio supera en más del 75% a la femenina. Pero, en otros como Grecia o Portugal, aun siendo muy relevante, la diferencia de esta incidencia según género es muy inferior (18% y 36%, respectivamente).

La evolución en la última década de la tasa de mortalidad estandarizada asociada a las patologías del sistema circulatorio reduce progresivamente su incidencia, desde los 295 fallecimientos por cada 100.000 habitantes de 2000 a los 246 de la actualidad. Los factores que están influyendo en el descenso paulatino de este indicador son la mejora de las técnicas sanitarias y sobre todo la incorporación de hábitos de vida más saludables.

Definiciones y comparabilidad internacional

- Los datos del número de fallecimientos proceden de fuentes administrativas referidas a los certificados de defunción que registra cada país.
- La población de referencia se calcula en base a la población a mitad de año residente en cada país. Se considera la población estandarizada, lo que minimiza el efecto de la estructura poblacional por edades del país en la consideración de la mortalidad.
- La comparabilidad de la información entre países puede estar limitada por los distintos criterios respecto a la consideración o no de población extranjera residente en el país y población nacional residente en el extranjero en los datos de certificados de defunción. A ellos se suma las diferencias de criterios en el diagnóstico y la adscripción a la causa de fallecimiento.
- El presente indicador recoge aquellas muertes cuya causa subyacente se encuentra ligada a enfermedades del sistema circulatorio.

5.3.5.1. Heriotza tasa estandarizatua. Zirkulazio sistema¹³

Zirkulazio sistema da EB-27ko herrialdeetako heriotzen lehenengo arrazoia; guztira 246 pertsona hil dira ehun mila biztanleko, 200 emakume eta 302 gizon. Frantzia (129) eta Euskal AEn (137) daude zirkulazio sistemaren ondoriozko heriotza tasaren balio txikiak. Eta beste 10 herrialdetan (Espainian, Herbehereetan edo Norvegian, besteak beste) patologia horrek urtero 150 eta 200 arteko hildako kopurua sortzen du.

Bigarren multzo bateko herrialdeetan (11), 200 eta 300 arteko hildako kopurua sortzen du; Finlandian eta Alemanian, esaterako. Azkenik, EBaren azken zabaltzeetako herrialdeetan balioak askoz handiagoak dira: zirkulazio sistemaren ondorioz 350 hildakotik gora egon da.

Gaixotasun mota honek¹⁴ emakumeei baino gizon gehiagori eragiten die. Izan ere, muturreko bi datu eman dira. Alde batetik, Euskal AEn edo Finlandian (besteak beste) zirkulazio sistemaren patologien ondoriozko gizonen heriotza tasa estandarizatua emakumeena baino % 75 handiagoa izan da. Baina beste herrialde batzuetan (Grezia edo Portugal), bi generoen arteko aldea handia izan arren aurrekoena baino askoz txikiagoa izan da (% 18 eta % 36, hurrenez hurren).

Zirkulazio sistemako patologien ondoriozko heriotza tasa estandarizatua, azken hamarkadan, etengabe txikitzen joan da: 2000. urtean 100.000 biztanleko 295 hildako izan ziren eta urte honetan 246 hildako. Adierazle hau etengabe txikitzean eragina duten faktoreak osasun teknikoan hobekuntza eta, batez ere, bizimodu osasuntsuagoa dira.

Definizioak eta nazioarteko alderaketa

- Heriotza kopuruari buruzko datuak administrazio iturrietatik bildu dira, herrialde bakoitzeko heriotza ziurtagiriak oinarritzat hartuta.
- Erreferentziako biztanle kopurua kalkulatzeko urte erdian herrialde bakoitzean bizi zen pertsona kopurua hartu da oinarritzat. Biztanleria estandarizatu egiten da, herrialde batek adinaren arabera duen biztanle-egituraren eragina ahalik eta txikiagoa izan dadin heriotza tasa aztertu behar denean.
- Herrialde bakoitzaren informazioa besteenarekin alderatzean irizpide batzuk ezar daitezke: herrialdean bizi diren atzerriarrak eta atzerrian bizi diren herrialdeko biztanleak heriotza ziurtagiriaren datuetan kontuan hartuko diren, adibidez. Gainera, irizpide ezberdinak ager daitezke diagnostikoak ematean eta heriotza eragin duen arrazoia egotean.
- Adierazle honek jasotzen dituen heriotzak, zirkulazio sistemaren gaixotasunei lotutako azpiko arrazoiek eragindakoak izan dira.

¹³ Fuente: Eurostat y Eustat (Estadística de defunciones y Actualización del censo poblacional).

¹⁴ En la que resulta determinante la incidencia de hábitos especialmente perjudiciales, como es el consumo de alcohol y de tabaco, sobre todo en las cohortes de edad (masculinas) superiores a los 40 años.

¹³ Iturria: Eurostat eta Eustat (Heriotzen estatistika eta Errolda arteko biztanleen eguneratzea).

¹⁴ Ohitura oso kaltegarriek eragiten dituzte, alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa esaterako, batez ere 40 urtetik gorako gizonen artean.

Gráfico 20
Evolución de la mortalidad estandarizada debida al sistema circulatorio

20. grafikoa
Heriotza tasa estandarizatuaren bilakaera: zirkulazio sistema





Gráfico 21
Tasa de mortalidad estandarizada debida al sistema circulatorio. 2007

21. grafikoa
Zirkulazio sistemaren ondoriozko heriotza tasa estandarizatu. 2007



(*) Bildutako azken datua, 2006. / Último dato disponible, 2006.

(**) 2006 baino lehen bildutako azken datua. / Último dato disponible anterior a 2006.

5.3.5.2. Tasa de mortalidad estandarizada. Cáncer¹⁵

La segunda causa de fallecimiento, detrás de las patologías relacionadas con el sistema circulatorio, es el cáncer, con 180 fallecidos por cada 100.000 habitantes en el conjunto de la UE-27. Países nórdicos, como Finlandia y Suecia, o Suiza, registran los menores valores en esta tasa, en torno a los 150 fallecimientos. Por el contrario, Polonia o República Checa superan los 200 fallecimientos. Por otro lado, la C.A. de Euskadi y España, registran una posición intermedia-baja, con 172 y 162 fallecimientos, respectivamente.

Entre las razones¹⁶ que se encuentran detrás de las diferencias en la incidencia del fallecimiento asociado al cáncer entre los países considerados se encuentran la exposición de la población a hábitos de riesgo (tabaquismo, exposición solar) y los ligados con aspectos médicos entre los que destaca el diagnóstico precoz y el desarrollo de tratamientos efectivos para los distintos tipos de cáncer, además de las diferencias en la adscripción de la causa¹⁷ de fallecimiento.

La incidencia de esta patología como causa de muerte es mayor entre los hombres y es especialmente pronunciada en algunos países, entre otros, en la C.A. de Euskadi y en España, donde la tasa de mortalidad por cáncer en los hombres duplica al valor registrado entre las mujeres.

En general, la tasa de mortalidad por cáncer sigue una ligera tendencia a la baja desde 2000. En el conjunto de la UE-27 la tasa era de 192 fallecimientos en 2000 y se ha reducido hasta 180 en 2006.

Definiciones y comparabilidad internacional

- Los datos del número de fallecimientos proceden de fuentes administrativas referidas a los certificados de defunción que registra cada país.
- La población de referencia se calcula en base a la población a mitad de año residente en cada país. Se considera la población estandarizada, lo que minimiza el efecto de la estructura poblacional por edades del país en la consideración de la mortalidad.
- La comparabilidad de la información entre países puede estar limitada por los distintos criterios respecto a la consideración o no de población extranjera residente en el país y población nacional residente en el extranjero en los datos de certificados de defunción. A ellos se suma las diferencias de criterios en el diagnóstico y la adscripción a la causa de fallecimiento.
- El presente indicador recoge aquellas muertes cuya causa subyacente se encuentra ligada a la presencia de tumores.

5.3.5.2. Heriotza tasa estandarizatua. Minbizia¹⁵

Zirkulazio sistemaren ondoriozko patologien atzetik minbi-ziak sortzen du heriotza gehien EB-27ko herrialde guztietan: 100.000 biztanleko 180 hildako. Europako iparraldeko Finlandia eta Suedia herrialdeetan eta Suitzan tasa hori txikiagoa izan da: 150 hildako inguru. Baina Polonian eta Txekiar Errepublikan 200 hildako baino gehiago izan dituzte. Euskal AE eta Espainia erditik beherako tartean daude, 172 eta 162 hildakorekin, hurrenez hurren.

Aztertu diren herrialdeetan, minbiziari lotuta dagoen heriotza kopuru batetik besterako aldeak¹⁶ honakoak kontuan hartuta eman dira: biztanleek ohitura arriskutsuak (tabakismoa, eguzkia hartzea) izan dituzten ala ez, medikuntzako alderdi batzuk (diagnostiko goiztiarra eta minbizi mota ezberdinetarako tratamendu eraginkorrak) tartean izan diren, eta heriotza eragin duen arrazoia¹⁷ egozteko ezberdintasunak.

Emakumeak baino gizon gehiago hiltzen da patologia horren ondorioz, eta batez ere, besteak beste, Euskal AEn eta Espainian. Hauetan minbiziak hildako gizonen kopurua emakumeena baino bi aldiz handiagoa da.

Oro har, minbiziaren ondoriozko heriotza tasa 2000. urteaz gero pixkanaka txikitzen joan da. EB-27 osoan 192 pertsona hil ziren 2000. urtean arrazoi horregatik, eta 2006an 180.

Definizioak eta nazioarteko alderaketa

- Heriotza kopuruari buruzko datuak administrazio iturrietatik bildu dira, herrialde bakoitzeko heriotza ziurtagiriak oinarritzat hartuta.
- Erreferentziako biztanle kopurua kalkulatzeko urte erdian herrialde bakoitzean bizi zen pertsona kopurua hartu da oinarritzat. Biztanleria estandarizatu egiten da, herrialde batek adinaren arabera duen biztanle-egituraren eragina ahalik eta txikiena izan dadin heriotza tasa aztertu behar denean.
- Herrialde bakoitzaren informazioa besteenarekin alderatzean irizpide batzuk ezar daitezke: herrialdean bizi diren atzerriarrak eta atzerrian bizi diren herrialdeko biztanleak heriotza ziurtagiriaren datuetan kontuan hartuko diren, adibidez. Gainera, irizpide ezberdinak ager daitezke diagnostikoak ematean eta heriotza eragin duen arrazoia egoztean.
- Adierazle honek jasotzen dituen heriotzak, tumoreei lotutako azpiko arrazoiek eragindakoak izan dira.

¹⁵ Fuente: Eurostat y Eustat (Estadística de defunciones y Actualización del censo poblacional).

¹⁶ Con todo conviene no magnificar, ni en este ni en otros casos, la relevancia de los resultados inter-países, puesto que la estipulación de la adscripción de la causa de muerte no es homogénea. Es decir, una parte de la diferencia que se pueda detectar puede deberse, simplemente, a criterios de clasificación.

¹⁷ O del diagnóstico en general.

¹⁵ Iturria: Eurostat eta Eustat (Heriotzen estatistika eta Errolda arteko biztanleen eguneratzea).

¹⁶ Hala ere, ezin da handietsi herrialdeen datuen garrantzia, ez kasu honetan ez besteren batean ere; heriotzaren arrazoiaren egozpena ez delako homogenea. Hots, antzemandako aldeetako bat sailkapena egiteko irizpideen ondorioz gertatu ahal izan da.

¹⁷ Edo, oro har, diagnostikoa.

Gráfico 22
Tasa de mortalidad estandarizada debida al cáncer

22. grafikoa
Minbiziaren ondoriozko heriotza tasa estandariztua





Gráfico 23
Evolución de la tasa de mortalidad estandarizada debida al cáncer. 2007

23. grafikoa
Minbiziaren ondoriozko heriotza tasa estandarizatuaren bilakaera. 2007



(*) Bildutako azken datua, 2006. / Último dato disponible, 2006.

(**) 2006 baino lehen bildutako azken datua. / Último dato disponible anterior a 2006.

5.4. DETERMINANTES DE LA SALUD NO MÉDICOS

5.4.1. Consumo de alcohol¹⁸

El consumo excesivo de alcohol tiene efectos adversos para la salud, desde el mayor riesgo de sufrir enfermedades cardiovasculares hasta la cirrosis hepática o ciertos tipos de cáncer, y resulta ser una de las principales variables explicativas de algunos accidentes (tráfico).

Su consumo –medido como la proporción de la población que declara haberlo consumido en el último año– varía sensiblemente entre los distintos países europeos y se sitúa entre el 51% que alcanza en Rumania y el 93% de la población de Lituania. Siete países (Rumania, Hungría, España, Portugal, Chipre, Bulgaria y Malta) señalan entre el 50 y el 67% de población que ha consumido alcohol. En doce, entre ellos, Suiza, Italia, Alemania o la propia C.A. de Euskadi, esta proporción es del 70-85%. Por último, en siete países, Noruega, Suecia o Reino Unido, entre otros, la proporción es del 85-93%.

En general, el consumo declarado es mayor entre los hombres que las mujeres. Pero con importantes diferencias entre los países. Así, por ejemplo, en Irlanda este consumo corresponde al 87% y 83%, a los hombres y las mujeres, respectivamente, mientras que en España o en Portugal, las diferencias resultan más notorias; en el caso de Portugal la proporción es de 77% en los hombres y 41% en las mujeres.

Entre las razones que se encuentran detrás de estos distintos niveles de consumo de alcohol reconocido por las personas es preciso tener presente, además de aspectos puramente culturales y relacionados con hábitos, el alcance de las distintas políticas abordadas con respecto de su consumo excesivo. En este sentido, los límites a la publicidad/venta de este tipo de productos o los mayores impuestos aplicados a los mismos son ya instrumentos contrastados para obtener una reducción en el consumo de esta sustancia.

Definiciones y comparabilidad internacional

- Se define como consumidor de alcohol aquella persona que ha consumido esta sustancia en los últimos 12 meses. En este sentido, aglutina a personas con distinta intensidad en el consumo de alcohol: bebedores ocasionales, habituales, moderados, grandes bebedores y bebedores excesivos.
- La comparabilidad internacional de este indicador puede verse limitada por la falta de armonización en las encuestas nacionales –principal fuente de obtención de este tipo de datos– y por el distinto horizonte temporal en el que se realizan estos procesos de encuestación.

5.4. OSASUNAREN MUGATZAILEAK

5.4.1. Alkoholaren kontsumoa¹⁸

Alkohol gehiegi edaten bada osasunean ondorio kaltegarriak sor daitezke: gaixotasun kardiobaskularrak, gibekeko zirro-siak edo minbizi mota batzuk izateko arriskua areagotzen da. Horrez gain, alkohola istripu jakin batzuen (zirkulazio istripuen) eragile nagusienetako bat da.

Europako herrialdeetan kontsumo ezberdinak eman dira (azken urtean alkohola edan duten biztanleen ehunekoa aintzat hartuta); kontsumo txikiena % 51koa da, Errumanian eman dena, eta handiena % 93koa, Lituaniakoa. Zazpi herrialdeetan (Errumania, Hungaria, Espainia, Portugal, Zipre, Bulgaria eta Malta) alkohola kontsumitu duen biztanle kopurua % 50 eta % 67koa izan da. Beste hamabi herrialdeetan (Suitza, Italia, Alemania edo Euskal AE, besteak beste) biztanleen % 70 - % 85ak kontsumitzen du alkohola. Azkenik, zazpi herrialdeetan (Norvegia, Suedia, Erresuma Batua...) alkohola kontsumitzen duen biztanle kopurua % 85 eta % 93 artekoa da.

Oro har, kontsumoa aitortu dutenen artean emakumeak baino gizon gehiago dago. Baina herrialde bakoitzean sexuen arteko aldeak ezberdin eman dira. Adibidez, Irlandan, alkoholaren kontsumoa % 87 eta % 83 artekoa da gizonen eta emakumeen artean, hurrenez hurren; baina Espainian eta Portugalen ehunekoa % 77 da gizon artean eta % 41 emakume artean.

Pertsonak aitortu duten alkohol kontsumoan emandako alde hauen arrazoi batzuk kultura eta ohiturak dira, baita alkoholaren gehiegizko kontsumoaren gainean ezarri diren politiken betetze maila ere. Ildo horretan, produktu mota horien publikitatean/salmentan mugak ezartzea edo horiei zerga gehiago aplikatzea dagoeneko alkoholaren kontsumoa murrizteko egiaztatuta dauden irtenbideak dira.

Definizioak eta nazioarteko alderaketa


- Alkoholaren kontsumitzailetzat hartzen da azken 12 hila-beteetan substantzia hori kontsumitu duen pertsona. Alabaina, alkohol kopuru ezberdinak kontsumitzen dituzten pertsonak sartzen dira multzo horretan: noizean behingo edaleak, ohiko edaleak, neurritz edaten dutenak, asko edaten dutenak eta gehiegi edaten dutenak.
- Adierazle hau nazioartean konparatzean muga batzuk daude: inkesta nazionalen –datu hauek eskuratzeko iturri nagusia– ez dago bateratzerik eta honi buruzko inkestak denbora-tarte ezberdinetan egin dira.

¹⁸ Fuente: Eurostat y Dpto. de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco (Encuesta de salud del País Vasco 2007).

¹⁸ Iturria: Eurostat eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila (Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta - 2007).

Gráfico 24
Consumo de alcohol (% de población)

24. grafikoa
Alkoholaren kontsumoa (biztanleen %)



Herrialdeen erreferentzia urtea 1996 edo 2007 da.

Según países, la fecha de referencia del dato varía entre 1996 y 2007.

5.4.2. Consumo de tabaco¹⁹

Según la OMS (2002) el tabaco provoca uno de cada diez fallecimientos en el mundo –en torno a 5 millones de muertes anuales– lo que lo convierte en la segunda causa de muerte. Asimismo, representa un factor de riesgo relevante entre las principales causas de mortalidad prematura, como son las enfermedades del sistema circulatorio y las distintas tipologías de cánceres, contribuyendo de una manera muy negativa a las problemáticas relacionadas con el sistema respiratorio o al reducido peso y las enfermedades de los recién nacidos, en el caso de fumadoras embarazadas.

La proporción de fumadores diarios (los que declaran fumar al menos un cigarrillo al día) oscila fuertemente entre los países europeos, que se sitúan entre el 16% de Portugal y el 36% de Austria. De hecho, Portugal, Suecia, Finlandia y Eslovaquia, registran los porcentajes de fumadores más bajos, entre el 16 y el 20% de la población.

En ocho países, entre ellos Bélgica y la C.A. de Euskadi, la proporción está entre el 20 y el 25%. En once países, como Francia, Alemania y España, esta proporción se encuentra entre el 25 y el 30%. Por último, en siete de los países considerados, principalmente de Europa del Este, esta tasa supera el 30%.

La proporción de fumadores es mayor entre los hombres, con la única excepción de Suecia donde la tasa femenina supera en dos puntos porcentuales a la masculina. Además, y por razones culturales y de costumbre social, este diferencial es especialmente desfavorable para los hombres en los países del Este de Europa, y por ejemplo, en Letonia la tasa masculina supera el 50%, mientras que la femenina se sitúa en el 17%. Por el contrario, en los países nórdicos ambas tasas tienden a una mayor equiparación, de forma que en Noruega la tasa masculina es del 29% y la femenina del 27%.

Definiciones y comparabilidad internacional

- Este indicador define la proporción de población que declara fumar al menos un cigarrillo al día. Se trata de la tipología de fumadores diarios.
- La comparabilidad internacional de este indicador puede verse limitada por la falta de armonización en las encuestas nacionales –principal fuente de obtención de este tipo de datos– y por el distinto horizonte temporal en el que se realizan estos procesos de encuestación.

5.4.2. Tabakoaren kontsumoa¹⁹

OMEren arabera (2002) munduan hildako hamar pertsonatik bat tabakoaren erruz hil da –urtean 5 milioi hildako inguru–, beraz tabakoa heriotzen bigarren eragilea da. Halaber, heriotza goiztiarrak sortzen dituzten arrazoi nagusien artean tabakoa arrisku faktorea da: zirkulazio sistemako gaixotasunak eta minbizi mota guztiak. Gainera, arnas sistemari, pisu eskasari eta jaioberrien gaixotasunei (amak haurdunaldian erre badu) lotutako arazoetan kalte handiak eragiten ditu.

Europako herrialdeetan eguneko (hau da, egunean gutxienez zigarro bat erretzen duten) erretzaileen ehunekoak % 16 (Portugal) eta % 36 (Austria) artean daude. Izan ere, Portugal, Suediak, Finlandiak eta Eslovakiak dituzte erretzaileen ehuneko txikiak: biztanle guztien % 16 eta % 20 artean da erretzailea.

Zortzi herrialdetan (Belgika eta Euskal AE tartean) erretzaileen kopurua % 20 eta % 25 artekoa da. Hamaika herrialdetan (Frantzia, Alemania, Espainia...) % 25 eta % 30 artekoa da. Azkenik, aztertutako zazpi herrialdetan, batez ere Europako ekialdeko herrialdeetan, tasa hori % 30etik gora dago.

Gizonak dira emakumeak baino erretzaileagoak; hala ere, salbuespen bakarra Suedia da, hemen erretzen duen emakumezkoen tasa gizonezkoena baino bi puntu altuagoa baita. Kultura eta gizarte ohitura direla medio, Europako ekialdeko herrialdeetan gizonezkoen tasak dira handienak; adibidez, Letonian, gizon erretzaileen tasa % 50etik gorakoa da baina emakume erretzaileena % 17 da. Europako iparraldeko herrialdeetan, aldiz, sexu bien tasak parekatuago daude: Norvegian gizonen tasa % 29 da eta emakumeena % 27.

Definizioak eta nazioarteko alderaketa


- Adierazle honek egunean gutxienez zigarro bat erretzen duela esan duten pertsonen kopurua zehazten du. Eguneko erretzaileen tipologia ematen du.
- Adierazle hau nazioartean konparatzean muga batzuk daude: inkesta nazionaletan –datu hauek eskuratzeko iturri nagusia– ez dago bateratzerik eta honi buruzko inkestak denbora-tarte ezberdinetan egin dira.

¹⁹ Fuente: Eurostat y Dpto. de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco (Encuesta de salud del País Vasco 2007).

¹⁹ Iturria: Eurostat eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila (Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta - 2007).

Gráfico 25
Consumo de tabaco (% de población)

25. grafikoa
Tabakoaren kontsumoa (biztanleen %)



Herrialdeen erreferentzia urtea 1996 edo 2007 da.

Según países, la fecha de referencia del dato varía entre 1996 y 2007.

5.4.3. Obesidad²⁰

Las altas tasas de obesidad en la niñez y entre los adultos se están convirtiendo en una de las principales preocupaciones de la salud pública, ya que se relaciona con numerosos problemas de salud, como la hipertensión, la diabetes, las enfermedades cardiovasculares, problemas respiratorios como el asma, incluso algunas tipologías de cáncer.

La proporción de población obesa, entendida como aquella con un índice de masa corporal igual o superior a 30, se sitúa entre el 6% de Noruega y el 23% del Reino Unido.

Además de Noruega, en otros siete países (Suiza, Italia, Austria, Países Bajos, Rumania, Francia y Dinamarca), la tasa de población obesa se sitúa entre el 7 y el 9,5%. Pero, en la mayoría de los países considerados, entre los que se encuentran Suecia, Bélgica, Irlanda, España y la C.A. de Euskadi, la tasa se sitúa entre el 10 y el 15%. Por último, cinco países registran una tasa del 15-20% y en Alemania y Reino Unido superan el 20%.

En trece de los países considerados la tasa masculina supera a la femenina. En España no existe una diferencia sustancial entre las tasas de ambos géneros (la masculina es del 13% y la femenina del 13,5%) mientras que en la C.A. de Euskadi la tasa masculina es ligeramente superior a la femenina (13,3% frente al 11,8%).

Entre las razones que han propiciado este crecimiento de las tasas de obesidad se encuentran la mejora global de las rentas de los hogares, el acceso y la popularización de alimentos pre-cocinados y de alto contenido en grasas y azúcares y la menor actividad física. Estos nuevos patrones de comportamiento afectan especialmente a la población más joven.

Definiciones y comparabilidad internacional

- La Organización Mundial de la Salud (OMS) define el sobrepeso como un IMC igual o superior a 25, y la obesidad como un IMC igual o superior a 30.
- Estos umbrales sirven de referencia para las evaluaciones individuales, pero distintos estudios apuntan a que el riesgo de enfermedades crónicas en la población aumenta progresivamente a partir de un IMC de 21.
- La comparabilidad internacional de este indicador puede verse limitada por la falta de armonización en las encuestas nacionales, principal fuente de obtención de este tipo de datos y por el distinto horizonte temporal en el que se realizan estos procesos de encuestación.

5.4.3. Gizentasuna²⁰

Osasun publikoan gero eta kezkarriagoa da umeen eta helduen gizentasun tasa handia. Gizentasunak hainbat arazo sortzen ditu osasunean: hipertentsioa, diabetea, gaixotasun kardiobaskularrak, asma bezalako arnas arazoak eta minbizi mota batzuk.

Biztanle gizenen (gorputz-masaren indizea 30ekoa edo handiagoa dutenen) ehunekoa % 6 da Norvegian eta % 23 Erresuma Batuan.

Norvegiar gainera beste zazpi herrialdetan (Suitza, Italia, Austria, Herbehereak, Errumania, Frantzia eta Danimarka) gizentasun tasa % 7 eta % 9,5 artekoa izan da. Baina aztertu diren herrialde gehienetan (besteak beste, Suedia, Belgika, Irlanda, Espainia eta Euskal AE) tasa hori % 10 eta % 15 artekoa da. Azkenik, bost herrialdetan tasa % 15 eta % 20 artekoa izan da eta Alemanian eta Erresuma Batuan % 20tik gorakoa izan da.

Aztertutako hamahiru herrialdetan gizonezkoen tasa emakumeena baino handiagoa izan da. Espainian ez dago alde handirik bi generoen tasean artean (gizonen tasa % 13 da eta emakumeena % 13,5); baina Euskal AEn gizonen tasa emakumeena baino pixka bat handiagoa da (% 13,3 eta % 11,8).

Gizentasun tasak gora egiteko arrazoi batzuk hauek dira: familien errentek oro har hoberantz egin dute, aurrez prestatutako eta gantz eta azukre ugari duten elikagai gero eta gehiago egoteaz gainera zabaltzen doaz, eta ariketa fisiko gutxiago egiten da. Portaeren eredu berri hauek biztanle gazteenengan dute batez ere eragina.

Definizioak eta nazioarteko alderaketa


- Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) esanetan, GMI 25 edo handiagoa denean ematen da gehiegizko pisua, eta gizentasuna GMI 30 edo handiagoa denean.
- Tarte horiek banakoen ebaluaziorako erreferentzia moduan erabiltzen dira; baina azterlan batzuen arabera, biztanleek gaixotasun kronikoak edukitzeko arriskua pixkanaka gehituz doa GMI 21 denetik aurrera.
- Adierazle hau nazioartean konparatzean muga batzuk daude: inkesta nazioartean –datu hauek eskuratzeko iturri nagusia– ez dago bateratzerik eta honi buruzko inkestak denbora-tarte ezberdinetan egin dira.

²⁰ Fuente: Eurostat y Dpto. de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco (Encuesta de Salud del País Vasco 2007).

²⁰ Iturria: Eurostat eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila (Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta - 2007).

Gráfico 26
Personas con obesidad (% de población)

26. grafikoa
Pertsona gizenak (biztanleen %)



Herrialdeen erreferentzia urtea 1996 edo 2007 da.

Según países, la fecha de referencia del dato varía entre 1996 y 2007.

5.4.4. Emisión de gases de efecto invernadero²¹

La Agencia de Protección del Medioambiente de EE.UU. (EPA, en inglés) declaró oficialmente (abril 2009) que el dióxido de carbono y otros cinco gases que originan el efecto invernadero, producidos por fábricas, centrales eléctricas y vehículos de motor, entre otros, dañan la salud de los seres humanos. Investigaciones anteriores ya señalaban que la contaminación del aire perjudica directamente a personas que padecen asma y otros tipos de enfermedad pulmonar o cardíaca y que los ancianos y los menores son especialmente vulnerables a los efectos de la contaminación.

El *Protocolo de Kyoto*, instrumento respaldado por Naciones Unidas para controlar las emisiones de gases de efecto invernadero, asigna a la Unión Europea el compromiso de reducción de emisiones en un 8% respecto a 1990. Este compromiso se reparte de distinta forma para cada estado miembro, correspondiendo a España, como objetivo para el 2010, la limitación de aumentar como máximo un 15% de las emisiones respecto a 1990 (año base), y habiendo reflejado España en los tres últimos años (2005-2007) un aumento acumulado de emisiones en torno al 50% respecto a 1990.

El Gobierno Vasco por su parte ha puesto en marcha el *Plan Vasco de lucha contra el Cambio Climático 2008-2012*, que plantea como primer objetivo «limitar para el año 2010 las emisiones totales de gases efecto invernadero regulados en el Protocolo de Kioto para que no sobrepasen el 14% las emisiones del año 1990²²». Las emisiones de gases de efecto invernadero en 2007 supusieron un descenso del 0,8% respecto a 2006, aun así, respecto a 1990 el aumento acumulado de emisiones se situó en el 21%, es por este motivo por el que se convierte en objetivo prioritario de actuación del II Programa Marco Ambiental.

Definiciones y comparabilidad internacional

- Los seis gases de efecto invernadero considerados en el protocolo de Kioto son el anhídrido carbónico (CO₂), el metano (CH₄), el óxido nitroso (N₂O), la familia de hidrofluorocarbonos (HFC), la familia de perfluorocarbonos (PCF) y el hexafluoruro de azufre (SF₆).

5.4.4. Berotegi-efektuko gasen isurketa²¹

AEBetako Ingurumena Babesteko Agentziak (EPA ingelesez) 2009ko apirilean ofizialki adierazi zuen besteak beste fabrikek, zentral elektrikoek eta motordun ibilgailuek isuritako karbono dioxidoa eta berotegi-efektua sortzen duten beste bost gas, kaltegarriak direla gizakien osasunerako. Lehenagoko ikerketetan dagoeneko aipatu zen airearen kutsadurak eragin zuzena duela asma duten pertsonengan eta biriketako edo bihotzeko beste gaixotasunen bat duten pertsonengan; eta adindunak eta umeak direla ahulenak kutsaduraren ondorioen aurrean.

Kiotoko protokoloak berotegi-efektua duten gasen igorpena kontrolatzen du; izan ere, Nazio Batuen bitarteko honen arabera, Europar Batasunak 1990. urtean zituen igorpenak % 8 murriztu behar ditu. Konpromiso hori ez da berdin banatu Batasuneko herrialde kide guztien artean: Espainiak, esaterako, 2010. urterako gehienez % 15 gehi ditzake 1990. urteko (oinarrizko urteko) igorpenak, baina azken hiru urteetan (2005-2007) 1990eko igorpenak % 50 inguru gehitu ditu.

Eusko Jaurlaritzak *Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana* (2008-2012) jarri du martxan, eta bertan ezarritako lehenengo helburua hauxe da: «Kiotoko Protokoloan arautzen diren berotegi-efektuko gas guztien igorpenak mugatzea, gehienez ere 1990. urtekoak baino % 14 gehiago izan daitezen²²». 2007. urteko berotegi-efektuko gasen igorpenak 2006koak baino % 0,8 gutxiago izan dira; hala ere, 1990. urtearen aldean oraindik % 21 gehiago izan dira igorpenak. Horregatik, Ingurumen Estrategiaren II. Agiria lehenasunezko jardun bihurtu da.

Definizioak eta nazioarteko alderaketa

- Kiotoko protokoloaren arabera, sei gas hauek dute berotegi-efektua: anhídrido karbonikoa (CO₂); metanoa (CH₄); óxido nitrosoa (N₂O); hidrofluorokarbonoen familia (HFC); perfluorokarbonoen familia (PFC); eta sufre hexafluoruroa (SF₆).

²¹ Fuente: Eurostat: Indicadores de contaminación del Aire y Cambio Climático. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. Inventario Anual de Gases de Efecto invernadero 2007.


²² El año base se establece como 1990 para CO₂, CH₄, N₂O y como 1995 para los gases fluorados; dado que el peso de los primeros es mucho mayor, se suele hacer referencia también a 1990.

²¹ Iturria: EUROSTAT Aire-kutsaduraren adierazleak eta klima-alderaketa. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saila Berotegi-efektudun gasen urteko inbentarioa 2007.

²² 1990. urtea hartu da oinarritzat CO₂, CH₄, N₂O gasentzat; baina 1995. urtea hartu da oinarritzat gas fluoratuentzat. Lehenengo horiek askoz garrantzitsuagoak direnez, 1990. urteari ere egiten zaio erreferentzia.

Gráfico 27
Evolución del índice de gases de efecto invernadero

27. grafikoa
Berotegi-efektuko gasen indizeak izan duen bilakaera




(*) Europako araudiak ez du helbururik ezarri Euskal AEn 2010. urterako. Helburu hori EAEko Ingurumen Estrategiaren Planean (2007-2010) ezarri da.

(*) La normativa europea no fija un objetivo para el 2010 en la C.A. de Euskadi. El objetivo se establece en el Plan Marco Ambiental de la CAPV 2007-2010.

Gráfico 28
Emisión de gases de efecto invernadero por países
(en equivalentes de CO₂). 2007

28. grafikoa
Berotegi-efektuko gasen igorpenek izan duten indizea. 2007



5.5. PERSONAL DE LA SALUD

5.5.1. Personal medio por cama disponible en hospitales de agudos²³

La ratio de personal medio hospitalario por cama disponible, con relación a las camas en hospitales de agudos, varía sustancialmente entre países. Estados Unidos, Noruega y Canadá, son tres países en los que esta ratio alcanza los mayores valores y, en promedio, cuentan con más de cuatro personas por cada cama.

En la mayoría de los países, concretamente en trece de los veintinueve países considerados, esta ratio se sitúa entre 2 y 4 personas. Dentro de este grupo se encuentran la C.A. de Euskadi y España, que asignan 3,4 y 3,8 personas del personal sanitario por cada cama. Por su parte, países con un grado de desarrollo económico, social y sanitario muy diverso, muestran unos resultados muy parecidos, como ocurre en el caso de Hungría, Francia o Portugal, que se encuentran por debajo de las 2 personas por cada cama.

A lo largo de los últimos años y especialmente desde inicios de década, el personal sanitario medio por cama disponible en los hospitales de agudos registra una tendencia al alza. Este comportamiento se detecta en el conjunto de los países de la OCDE.

- Bélgica, Italia, Países Bajos o Noruega son los que registran mayores aumentos en la dotación de personal sanitario por cama en hospitales de agudos, con crecimientos superiores a 0,7 personas.
- Por su parte, en España y la C.A. de Euskadi esta ratio ha experimentado un crecimiento de 0,6 y 0,2 personas, respectivamente. Y, en otros, como Alemania, Grecia o Dinamarca, el personal sanitario asociado a la cama hospitalaria se ha mantenido.

Esta evolución pone de manifiesto el refuerzo realizado en los recursos humanos, pero también la creciente especialización dentro de las áreas sanitarias, que requiere de dotaciones crecientes de personal. A todo ello se suma un uso más intensivo de las instalaciones, dado el acortamiento en las estancias medias de los pacientes y la mejora en la rotación (número de pacientes por cama).

Definiciones y comparabilidad internacional

- Número total de empleados cuya actividad principal consiste en ofrecer cuidados sanitarios en el contexto hospitalario (centros tipificados como hospital de agudos).
- Una variable próxima para su cálculo es la suma de médicos, personal de enfermería y administradores (incluidas las subcontrataciones de personal). La comparativa internacional debe realizarse con cautela ya que existen diferencias respecto a la inclusión de empleados en términos de equivalencia horaria o sin atender a la parcialidad de su dedicación.
- En la C.A. de Euskadi se ha incluido, asimismo, el número de personas subcontratadas (ámbitos de limpieza, cocina y seguridad, principalmente).

5.5. OSASUN ARLOKO LANGILEAK

5.5.1. Gaixo akutuen ospitaleetan erabilgarri dagoen ohe bakoitzerako batez besteko langile kopurua²³

Herrialde batetik bestera datu ezberdinak lortzen dira gaixo akutuen ospitaleetan erabilgarri dagoen ohe bakoitzerako batez besteko langile kopuruaren gainean. Ameriketako Estatu Batuetan, Norvegia eta Kanadan dago langile gehiago eta, batez beste, ohe bakoitzeko lau pertsona baino gehiago dituzte.

Herrialde gehienetan (zehazki, aztertu diren hogeita bat herrialdeetatik hamahirutan) 2 eta 4 pertsona artekoa da kopuru hori. Eta talde horren barruan sartzen dira Euskal AE eta Espainia, ohe bakoitzean osasun arloko 3,4 eta 3,8 langile dituztelako, hurrenez hurren. Bestalde, ekonomia, gizarte eta osasun arloetan garapen maila oso ezberdina duten herrialdeek antzeko emaitzak izan dituzte: Hungarian, Frantzia eta Portugalen, adibidez, ohe bakoitzeko 2 pertsona baino gutxiago dago.

Azken urteetan zehar, eta batez ere hamarkada hasieratik aurrera, gaixo akutuen ospitaleetan erabilgarri dagoen ohe bakoitzeko osasun arloko batez besteko langile kopurua gehitzen joan da. ELGEko herrialde guztietan antzeman da joera hori.

- Belgikan, Italian, Herbehereetan edo Norvegia gehitu da gehien gaixo akutuen ospitaleetako ohe bakoitzeko osasun arloko langile kopurua. 0,7 pertsonatik gorako gehikuntza izan dute.
- Espainian eta Euskal AEn 0,6 eta 0,2 pertsonako gehikuntza eman da, hurrenez hurren. Eta beste herrialde batzuetan (Alemanian, Grezian edo Danimarkan) ospitaleetako ohe kopuruari lotutako osasun arloko langile kopurua berdin mantendu da.

Bilakaera horrek erakusten du giza baliabideei garrantzia eman zaiela eta osasun arloak espezializatzen doazela, ondorioz, langile gehiago behar dira. Gainera, instalazioak gehiago erabiltzen dira, gaixoen batez besteko egonaldiak laburtu eta txandakatzea (ohe bakoitzeko gaixo kopurua) hobetu delako.

Definizioak eta nazioarteko alderaketa

- Ospitaleetan (gaixo akutuentzako ospitaleetan) osasun zaintza ematen duten langileen kopurua.
- Kalkulua egiteko aldagai hurbil bat izan daiteke mediku, erizain eta administratzaile kopurua batzea (azpikonttatuta dauden langileak ere zenbatuta). Kontu handiz konparatu behar dira nazioarteko datuak, aldeak daudelako langileak ordutegien arabera sailkatzeari dagokionez eta arduraldi partziala kontuan hartzeri dagokionez.
- Euskal AEn, azpikonttatutako pertsona kopurua ere sartu da (garbitasunekoak, sukaldekoak eta segurtasunekoak bereziki).

²³ Fuente: OCDE y Eustat (Estadística hospitalaria).

²³ Iturria: ELGE eta Eustat (Ospitale Estatistika).

Gráfico 29
Evolución del personal medio hospitalario por cama disponible (agudos)

29. grafikoa
Ospitaleetan (gaixo akutuenetan) erabilgarri dagoen ohe bakoitzerako batez besteko langile kopuruaren bilakaera





Gráfico 30
Personal medio hospitalario por cama disponible (agudos). 2006

30. grafikoa
Ospitaleetan (gaixo akutuenetan) erabilgarri dagoen ohe bakoitzerako batez besteko langile kopurua. 2006



(*) Bildutako azken datua, 2005. / Último dato disponible, 2005.

(**) 2005 baino lehen bildutako azken datua. / Último dato disponible anterior a 2005.

5.5.2. Personal medio de enfermería por cama disponible en hospitales de agudos²⁴

En el conjunto de países que integran la OCDE el personal medio de enfermería por cama disponible en hospitales de agudos es de 1,2 personas, con valores extremos entre los registrados por Corea (0,3) y México (2,1), respectivamente.

En un primer grupo de países analizados (9), la cifra de personal de enfermería por cama hospitalaria (agudos) es ligeramente inferior a una persona por cama disponible. Dentro de este grupo, se encuentran Alemania (0,8), Bélgica (0,9) y Francia (0,6).

En otros nueve países, entre ellos España y la C.A. de Euskadi, el ratio llega a 1,7 por cada cama disponible. En este grupo se incluye un rango de países con situaciones diversas, como Suiza e Italia (1,4), la C.A. de Euskadi (1,5), EE.UU. (1,6) o Noruega y España (1,7), con unos mayores valores en esta dotación.

Con respecto de la evolución de este indicador, desde 2000 se percibe una tendencia a la estabilidad, destacando por haber experimentado una cierta variación creciente en estas cifras Portugal e Italia (+0,3 y +0,4 personas, respectivamente).

Definiciones y comparabilidad internacional

- Se refiere a la suma de las enfermeras de primer y segundo nivel. La distinción entre enfermeras de primer y segundo nivel dista entre países: en España se consideran enfermeras de primer nivel las que han completado la diplomatura de 3 años, mientras que las de segundo nivel, son las que han realizado estudios secundarios más 2 años de estudios postsecundarios de enfermería. Las matronas se contabilizan por separado.
- El cómputo del personal de enfermería en la C.A. de Euskadi se realiza sumando a los diplomados en enfermería, los auxiliares de clínica que suponen aproximadamente un 42% del valor del indicador –dado que el número de auxiliares es similar al de los ATS–.
- La comparativa internacional debe realizarse con cautela ya que existen diferencias respecto a la inclusión de empleados, sea en equivalencia horaria, sea en número de empleados, sin atender a su dedicación parcial, y respecto a la inclusión de enfermeras de primer y segundo nivel entre países.

5.5.2. Gaixo akutuen ospitaleetan erabilgarri dagoen ohe bakoitzerako batez besteko langile kopurua²⁴

ELGE osatzen duten herrialde guztietan, gaixo akutuen ospitaleetan erabilgarri dagoen ohe bakoitzerako batez beste 1,2 erizain daude. Muturreko datuak dituzte Koreak (0,3) eta Mexikok (2,1), hurrenez hurren.

Aztertutako herrialdeen lehenengo taldean (9), gaixo akutuen ospitaleetan erabilgarri dagoen ohe bakoitzeko erizain bat baino pixka bat gutxiago dago. Talde honen barruan sartzen dira Alemania (0,8), Belgika (0,9) eta Frantzia (0,6).

Beste bederatzi herrialdetan (Espainian eta Euskal AEn, besteak beste) erabilgarri dagoen ohe bakoitzeko 1,7 erizain daude. Inguruabar ezberdinak dituzten herrialdeak daude multzo honetan: Suitza eta Italia (1,4), Euskal AE (1,5), AEB (1,6) edo Norvegia eta Espainia (1,7). Besteek baino balio handiagoak dituzte.

Adierazle honen bilakaerari dagokionez, 2000. urteaz gero egonkortzeko joera eman da. Portugal eta Italia nabarmendu dira, kopurua pixka bat gehitu dutelako (+0,3 eta +0,4 pertsona, hurrenez hurren).

Definizioak eta nazioarteko alderaketa

- Lehen eta bigarren mailako erizainen batura da. Erizainak lehen eta bigarren mailaren arabera bereiztean, herrialdeetan esanahi ezberdinak ematen dira: Espainian lehen mailako erizainak 3 urteko diplomatura amaitu dutenak dira, eta bigarren mailakoak bigarren mailako ikasketen ostean erizaintzako ikasketak (bigarren mailako ikasketen ondorengoak) egin dituztenak. Emaginak ez dira multzo horretan zenbatzen.
- Euskal AEko erizain kopurua kalkulatzeko, erizaintzako diplomadunak eta klinikako laguntzaileak batu behar dira. Azken hauek adierazlearen % 42 inguru dira, laguntzaileen kopurua OLTen kopuruaren antzekoa baita.
- Kontu handiz konparatu behar dira nazioarteko datuak, aldeak daudelako langileak ordutegien arabera sailkatzeari, langileen arduraldi partziala kontuan hartzeari eta herrialde bakoitzean lehen eta bigarren mailako erizainak sartzeari dagokionez.

²⁴ Fuente: OCDE y Eustat (Estadística hospitalaria).

²⁴ Iturria: ELGE eta Eustat (Ospitale Estatistika).

Gráfico 31
Evolución del personal medio de enfermería por cama disponible (hospitales de agudos)

31. grafikoa
Gaixo akutuen ospitaleetan erabilgarri dagoen ohe bakoitzerako batez besteko erizain kopuruaren bilakaera





Gráfico 32
Personal medio de enfermería por cama disponible (hospitales de agudos). 2006

32. grafikoa
Gaixo akutuen ospitaleetan erabilgarri dagoen ohe bakoitzerako batez besteko erizain kopurua. 2006



(*) Bildutako azken datua, 2005. / Último dato disponible, 2005.

(**) 2005 baino lehen bildutako azken datua. / Último dato disponible anterior a 2005.

5.5.3. Personal graduado en medicina²⁵

La formación y generación del alumnado que se gradúa en medicina muestra importantes diferencias, desde las 5,5 personas graduadas en Francia a las 21 de Austria anuales por cada 100.000 habitantes. De hecho, en otros seis países, entre los que además de Francia se encuentran Canadá, Japón o EE.UU., el número es inferior a las 7 anuales.

En el grueso de los países, concretamente en trece de los veintinueve considerados, la cifra se sitúa entre las 7 y las 9,5. La C.A. de Euskadi y España se encuentran dentro de este colectivo, con una cifra anual de 8,2 y 8,6, respectivamente. Por último, en diez países esta ratio supera los 10, destacando los resultados obtenidos por Irlanda, Dinamarca y Bélgica con ratios superiores a los 15 anuales.

En la mitad de los países esta ratio tiende a disminuir y en la otra mitad se incrementa. Entre los primeros, se encuentran Suiza, España o la C.A. de Euskadi, y en esta última, las personas licenciadas en medicina por cada 100.000 habitantes se han reducido de 9,5 de 2000 a 8,2 de 2007. Por el contrario, en Países Bajos y, sobre todo, en Dinamarca, esta tasa se ha incrementado de 8,3 por 100.000 habitantes de 2000 hasta 15,6 de 2007.

Como nota al análisis, se debe citar que existen diferencias sustanciales entre los países con respecto al ámbito y la naturaleza de las instituciones dedicadas a la formación sanitaria. Estas diferencias se concretan en el ámbito central o subcentral en el que se deciden el número de matriculaciones anuales, y en la naturaleza –pública o privada– de las instituciones de formación sanitarias. Por lo tanto, las conclusiones elaboradas sobre los mismos han de tomarse con cautela²⁶.

Definiciones y comparabilidad internacional

- Incluye el alumnado que se ha graduado en medicina en facultades de medicina o instituciones similares por cada 100.000 habitantes. Se excluye el personal graduado en farmacia, dentista y/o estomatólogo, salud pública y epidemiología.
- Se requiere cautela en la comparabilidad internacional de estos datos, ya que existen discrepancias entre países respecto a la inclusión o no de alumnado graduado extranjero (por ejemplo, el Reino Unido y la República Checa los excluyen).

5.5.3. Medikuntzan graduatutako pertsonak²⁵

Medikuntzan graduatutako pertsonen prestakuntza eta horien kopurua neurtzean alde handiak eman dira herrialde batetik bestera: Frantzia 100.000 biztanle bakoitzeko 5,5 pertsona graduatu dira arlo horretan eta Austria 21 pertsona. Izan ere, sei herrialdetan (Frantzia, Kanada, Japonia edo AEB, besteak beste) urtean 7 baino gutxiago prestatu dira.

Herrialde askotan (zehazki, aztertu diren hogeita bederatzik herrialdeetatik hamahirutan) kopuru hori 7 eta 9,5 artekoa da. Euskal AE eta Espainia daude multzo horretan, urtean 8,2 eta 8,6rekin hurrenez hurren. Azkenik, hamar herrialdetan 10 baino gehiago daude; Irlandan, Danimarkan eta Belgikan lortutako emaitzak azpimarratu behar dira, urtean 15etik gora dutelako.

